



EAEko Ingurugiro Estrategiaren Agiria



2000
2012

EAEko Ingurugiro Estrategiaren
Agiria



Dokumentu hau "LKS, Consultores"ek idatzi du, honako hauen zuzendaritzapean eta koordinaziopean:

Txaro Barturen (Ingurugiro Baliabideen Zuzendaritza, Ingurugiro Sailburuordetza)
Alexander Boto (IHOBE, S.A.)
Marta Ituribarria (Ingurugiro Baliabideen Zuzendaritza, Ingurugiro Sailburuordetza)
Maribel Martinez (Ingurugiro Kalitateko Zuzendaritza, Ingurugiro Sailburuordetza)
Ignacio Quintana (IHOBE, S.A.)

Argitarazlea: Lurrealde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila - Disenua: TRUPP
Euskaratzailea: Elhuyar-zetiaz - %100 paper birziklatuan inprimatua - D.P. 1357/00 - Ekainak 2000

Sarrera

1.	Sarrera	5
2.	Ingurugiro-Politika	9
	2.1. Ingurugiro-politikako elementuak. EAEko oraingo egoera	11
	2.1.1. Ingurugiro-gaiak	13
	2.1.2. Agenteak	23
	2.1.3. Ekonomia eta Ingurugiroaren integrazio-politkarako tresnak	43
	2.2. Ingurugiro-estrategia berria	53
	2.2.1. Pertzepzio-eremuak	55
	2.2.2. Epeak	57
	2.2.3. Ekonomia eta Ingurugiroaren arteko harreman berriak	59
	2.2.4. Ezagutzaren eta ingurugiro-jarduketaren arteko erlazioak	61
	2.2.5. Herrialdeen erantzunak	63
3.	ONDORIOAK: EAEko Ingurugiro-Politika Berriaren Beharra eta Horretarako Aukerak	69
4.	Ingurugiroko Esparru-Programa egiteko prozesua	
	4.1. Ingurugiroko Esparru Programaren ezaugarriak	75
	4.2. Antolamendu-egitura	81
	4.3. Ingurugiroko Esparru Programa egiteko metodologia	89
	4.4. Ingurugiroko Esparru Programaren egutegia	103



1. Sarrera

Gaur egungo politikak baditu hainbat bereizgarri eta muga ingurugiroaren kalitatea hobetzeko jardueraren eraginkortasunean. Azpimarratzekoak dira, besteak beste, Administrazioen eta programen arteko koordinazio eskasa, prebentzioaren aldean zuzenketari ematen zaion garrantzi handiegia, ekonomi sektoreen programa desarrollistek sustatzen duten ingurugiroaren gaineko presioa eta, Ingurugiroaren Egoera Globalaren garapena ikusita, nazio-artean izan diren aldaketak.

Dena den, eutsi egin behar zaie EAEko ingurune-eremuetan azken hamar urte hauetan jarraitutako politika partzialen oinarritzko bideei; izan ere, EAEko ingurugiroa hobetzeko, zuzentzeko eta zaintzeko neurriak sendotu eta finkatu egin dituzte.

Eusko Jaurlaritzaren eginkizun nagusia EAEko biztanleen ongizatea eta bizi-maila hobetzea da, bai orain eta bai gero. Horretarako, garrantzitsua da ingurunearen kalitatea zaintzea eta hobetzea, garapen jasangarriaren barnean, Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorren 2. artikuluan jasotzen den gisa. Horri guztiari erantzunez, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak Ingurugiroko Esparru Programa abiaraziko du. Programa hori administrazioaren eskumen guztiak batzeko tresna izango da eta Lege Orokorren xedeak betetzea izango du helburu; azken batean, Jaurlaritzak gai honetan duen eginkizun nagusia betetzea.

Ingurugiroko Esparru Programa hori lantzeko eztabaidagai gisa, Ingurugiro Estrategiaren Agiria delakoa proposatzen da. Dokumentuak ekonomiaren eta ingurugiroaren integrazioak oinarritzen du neurri handi batean etorkizuneko estrategia, EAEko ingurugiroko kapitalaren kudeaketari zuzenean lagunduz eta Sistemako eragile guztien eskura jarrita dauden baliabideak ahal den guztia hobetzeko apustu eginez.


Horrez gain, Ingurugiro Esparru Programa gizarte-multzoaren eskaeratik abiatuko da; izan ere, multzo horrek eratzen du ingurugiro-politikaren eta planteatzen diren bizi-kalitateko helburuen oinarria. Horregatik multzo horren zeregina ezinbestekoa izango da, berak zehaztuko baitu politika hori noraino iritsiko den eta martxan zein ekintza jarriko diren. Beraz, ingurugiro-politikako erabakiak hartzea publikoaren menpe egongo da neurri handi batean eta, zehazki, publiko horrek gizarte ereduari, aberastasun-sorkuntzari edo hazkunde ekonomikoari, baliabideen ahalmen eta erabilerrari, etab. i buruz dituen balioen menpe.

garapen jasangarria

integrazioa, ekonomia eta ingurugiroa

gizarte-eskaera

Ingurugiro-Estrategiaren agiria



Ingurugiro Estrategiaren Agiri hau bi ardatz nagusiren inguruan dago egituratuta:

- Lehen zatian, orain arte jarraitutako politiken inguruko ondorioak biltzen dira; halaber, dauden gabeziak eta ekonomi eta ingurugiro-sisteman dauden joera orokorrak hartuta, ingurugiro-politika koherente eta sendoa itxuratzen lagunduko duten ondorioak. Jarraian, EAEko ingurugiroan izatea espero den egoera aztertuko da, Europar Batasuneko herrietakoarekin parekatuz.
- Hortik aurrera, Ingurugiroko Esparru Programaren edukia zehaztuko duten elementuak eta ingurugiroarekin eta bizi-kalitatearekin zerikusia duten esparruetan ezarri beharreko aldi bateko jarduerak proposatzen dira. Era berean, Ingurugiroko Esparru Programa bera eta bere ekintzaile nagusia lantzeko egitasmoa biltzen da.

Ingurugiroko Esparru Programa


Ingurugiro Estrategiaren Agiriak Ingurugiroko Esparru Programaren eskema metodologiko bat garatu du. Eskema horrek informazioan eta parte hartzean oinarritutako estrategia bultzatu nahi du, hori baita funtsezko bidea, ekonomia eta ingurunea integratzeko berezko joera, ingurugiroaren kalitatea eskatzen dutenen eta eragile presionatzaileen artera hel dadin. Informazio horrek eragile parte-hartzaileen arteko lankidetzeta eta, ingurunean jarduteko, alderdi guztiek onartzen dituzten lanabes eraginkorrak garatzea ahalbidetu behar ditu.

agente arteko elkarlana

Dokumentuak honakoa proposatzen du: Ingurugiroko Esparru Programaren garapenean azter daitezela ingurugiroaren kalitatearen gaur egungo egoera, nahiz biharkoa, eta kudeatu beharreko baliabideak, bakoitza bere denbora-eta leku-eskalan harturik.

Era berean, Ingurugiroko Esparru Programaren jarraipena proposatzen da, indarrean dirauen urteetan egin beharreko etengabeko ebaluazioa eta jarraipena.

Esandako horrek guztiak aurrera egin behar du, Ingurugiroko Esparru Programatik ingurugiroarekin eta bizi-kalitatearekin zerikusia duten EAEko jardueren gainean ezartzen den gidaritzari esker.



2. Ingurugiro - Politika

Bizi-kalitatea da "garatu" kategoria lortu duten lurraldeetako gizarteen xede nagusia. Euskal Autonomia Erkidegoan, legeetan bertan dago jasoa helburu hau, erakunde publikoek bermatu beharreko eskubide gisa. Xede honen isla ekonomi hazkundea ziurtatzeko gogoan ikusi da, batez ere, orain arte.

Helburu hori Administrazioak iraganean, desarrollismoan, inbertsio materialean eta abiada handiko hazkundean oinarritutako politika sektorializatua eginez bideratu zuen; hori guztia, eskumenen marko sakabanatuan -Erkidegotik kanpora begira, nahiz barnean-, baliabide publikoen kudeaketa ez oso egokia eginez eta, zenbaitetan, lotura handiegirik gabeko plan eta programei jarraituz.

Azken urteotan, ingurugiro-arloan, politika integratuen eta administrazioaren koordinazio handiagoaren aldeko ahalegina egin da, nahiz asmoa azken emaitzaren eraginkortasuna baino hobea izan.

Euskal erkidegoaren ekonomia eta gizartearen modernizatzeko-aroa joan da eta orain, hiritarrek bizi-kalitatearen alderdi kualitatiboaren inguruan egiten dituzten eskaera gero eta ugariagoei erantzun nahi die Administrazioak. Oinarritzak osasuna eta ingurunea dira, Eusko Jaurlaritzaren helburu orokorrean lehentasuna duten elementuak.

Eskaera haiek dator Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorra. Ingurunearen kalitatea bilatzeari ekiteko agindua biltzen du Legeak, eta ezarriak dituen helburu handietan hala ikusten da. Lege honek lehenengo aldiz xedatzen du garapena jasangarria izango dela eta, aldi berean, hedapen globaleko fenomeno gisa hartzen du ingurugiroarekiko kontzientzia.

Aipatutako legearen ondorioz, ingurugiroaren arloan, politika arrazionala, planifikatua, ebaluagarria eta bertakoa egiteko konpromisoa hartzen da. Nahiz eta Administrazioak eskumena EAEko lurraldeetan bakarrik izan, ingurunearen arazoaren globaltasunak gainerakoetatik bereizi gabe lan egitera darama eta mundu-mailako esparruan jardungo du.


Bertako politika arrazionalaren egitasmoa, datuak ematek abiatuko da eta informazioa osatzen joango da, gabeziak hartuz, gero oinarri sendoko erabakiak hartzeko berme-gisa eta lurraldeko ingurugiro-jarduerak segurtasun eta eraginkortasunez jantziko dituen estrategia egonkor eta iraunkorra sortuz.

abadia handiko hazkundea

bizi-kalitatearen

Fenómeno globala

Eredu kausala



2.1. Ingurugiro-politikak elementuak.

EAEko oraingo egoera

Lurralde Unitate bateko Ingurugiro Sistema dinamikoa da, giza jardueratik datozkion presioen pean, oreka ez-egonkorrean dabilena. Garai jakin batean edo "Lurraldeko Ingurugiroaren Egoera" zehatz batean dagoen egoera kuantifikatua aldatzen joaten da denboran zehar, besteak beste, Lurralde Unitate horretan ezarritako ingurugiro-politikaren ondorioz.

Politika hau koherentea izango da, betiere, jatorriaren eta ondorioen arteko harremanak erreferentziatzat hartzen baditu. Era berean, baliabideen aprobetxamendu jasangarria ahalbidetuko duten eta Ingurugiro Sistemaren gaineko presioen efektu negatiboak arinduko dituzten lanabesak garatu behar ditu.

Aipatutako arrazoen kate honek bere baitan biltzen ditu Ingurugiro Sistemaren presioaren bat eragiten dutenen gizarte eta ekonomi jardueratik datozen Emisioak eta Indar Eragileak. Sistemak presio hori guztiz edo hein batean asimilatu egiten du eta bere egoera aldatu egiten da. Aldaketa hori inpaktu negatibotzat jotzen da, ingurunearen kalitatearen narriadura bada-
kar.

"Gizarteak" erantzun egin beharko lieke inpaktu negatiboari; osterantzean, Sistema endekatu egingo baita eta biziarentzako arriskuak handitu egingo baitira. Erantzun horretarako erabakigarria izango da martxan jarri diren baliabideen eraginkortasuna; baita ingurugiro-politika egituratu duten baliabide horiek zein norabide hartu duten eta sistemako zein lekutan ezarri diren ere.

Beraz, ingurugiro-politikan oinarritzko hiru elementu bereiz daitezke: ingurugiro-gaiak edo arazoak, arazoak sortzen eta konponbideak bilatzen dituzten agenteak eta, azkenik, tresnak, atzeman nahi diren helburuak lortzeko Administrazioak jartzen dituen bitartekoak.

Agenteei dagokienez, horietako biren, publikoaren eta Administrazioaren, zeregin bikoitza azpimarratu beharra dago. Izan ere, alde batetik ingurugiro-kalitatea eskatzen dute eta bestetik presioak eragiten dituzte.

Horregatik, Administrazioak, ingurugiro-politikak ezarri eta garatzeko, kon-tuan hartutako Lurralde Unitateko gizarte-inguruneetako ingurugiroko bizi-penei buruzko oinarritzko gaiak gogoan izan beharko ditu.

Ingurugiro-sistema

Ingurugiro-Politika



1. Gakoa

Ingurugiro-politikak kostu/etekin erako analisisian du oinarria. Analisiaren helburua Ingurugiro Sistemaren kalitatea hobetzea da, betiere, erabaki horrek dakartzan zuzeneko edo zeharkako kostuak onartuz, ezer egin ezean, ingurugiroaren narriaduragatiko arriskuak zein diren kontuan izanda.

Ondorioz, Eredu kausal honek eta antzekoek Lurralde Unitate jakin batean gizarte, ekonomia eta ingurugiroari dagozkion iritziak bere gain hartu eta ingurugiro-politiken eraginkortasunaz etorkizuneko egoeren marrazkiak eta simulazioak egiteko aukera eskaintzen dute. Erabilgarria izan dadin, beharrezkoak dira: informazio-maila ona, eredu iragarleak erabiltzea (une eta leku jakin batean sisteman gertatutako ekintzak beste une eta leku batean sisteman ezartzen den presio erreala bihurtzen dituzte), bata bestearekin harremanean dauden adierazleak interpretatzea eta kapital ekologikoaren etengabeko inbentarioa.

2.1.1 Ingurugiro-gaiak

Ingurugiroaren kalitatearen lehenengo hautematean, atmosferaren, uren eta lurzoruaeren egoera hartzen da erreferentziazat. Hala ere, ingurune horien narriaduraren zergatiak bilatzen hasita, Naturaren zikloengatik bata bestearekin harreman estua duten eta ekintza eta politika zehatzei esker errazago zuzen daitezkeen arazo batzuk aurkitzen dira: ingurugiro-gaiak.

Lurralde edo erkidego bakoitzean ingurunearen arazoek eragin handiagoa edo txikiagoa izango dute, zenbait faktoreren arabera: lurraldearen beraren egitura nolakoa den, bertan bizi den talde soziala zein den eta lurralde horrek Lurralde Unitate handiagoen barnean zein leku duenaren arabera. Europako eremuan oinarritzotzat jotzen diren ingurugiro-arazoak erreferentzia izanik, EAE edo antzeko Lurralde Unitateak bere ingurugiro-politika lantzerakoan, kontuan izan beharko lituzke, gutxienez, segidan datozen gai hauek. Bide batez, gai horiek gaur egun EAEn duten egoeraren berri ematen da.



Klima-aldaketa

Energiaren kontsumoak eta airera substantziak isurtzeak badute erantzukizunik arazo hauen sorburuan. Mundu-mailako arazoa izaki, Nazioarteko Hitzarmen eta Akordioak egin dira bere inguruan: lurralde sinatzaileek kontsumitzen den energia-mota aldatzeko eta kantitatea txikiagotzeko araudia martxan jartzeko konpromisoa dute.

Berotze globala eragiteko ahalmen handiena duten gasak honakoak dira: karbono dioxidoa, metanoa, klorofluorokarburoak, oxido nitrosoa, ozono troposferikoa eta uraren lurrin estratosferikoa.

EAEko karbono dioxido, metano eta oxido nitrosoko isuriak garai hartan (1990) Europako Batasuna osatzen zuten hamabi estatuen isuriek aldera-

Klima-aldaketa



tzen badira, EAEk berotze globalean duen ahalmen-portzentaia txikia dela oso ikus daiteke, milako 5ekoa gutxi gorabehera. Ibilgailuak eta industria dira, hain zuzen, isurien iturri nagusiak.

Azken urteotan murriztu egin dira EAEn berotze globala eragiteko gai diren gas-isurketak. Horretan asko lagundu dute zenbait industria zaharkitu ixteak, teknologia eta jarduera eraginkorragoak agertzeak eta energia-politikan egin diren aldaketek.

Biodibertsitatea galtzea

Ekosistemak hondatzen (zuzenean nahiz zeharka) eta baliabide naturalak era intentsiboan ustiatzen dator galera hau.

EAEko lurraldeak eraldatze sakona izan du, epe motzean gertatutako garapen sozioekonomiko handiaren ondorioz. Hala eta guztiz ere, oraindik badira balio naturalistiko handiko eremuak: lurraldearen azalera osoaren % 9,4 guztira. EAEko dibertsitate ekologikoa aberatsa da, hain lurralde txikia izan arren; kanpoan gero eta onespren handiagoa du gainera, eta eskualde edo eremu jakin batzuetako ekonomia biziberritzeko motortzat jotzen da.

Nazioarteko politiken esparruko gaia bada ere, lekuan bertan konpondu beharreko arazoa da, ekintza birsortzaileen eta lurralde-antolamendu eta gizartearen sensibilizazioaren bidez konpontzekoa. Ez dago nahikoa adostasun helburuak finkatzeko behar diren egoeraren eta eboluzioaren adierazleak erabakitze orduan; gainera, informazioa ere urriegia da.



Azidotzea

Atmosferara isuritako substantzia azidotzaileak, sufre dioxidoa (SO₂) eta nitrogeno oxidoak (NO_x) kasu, gehienak erregai fosiletatik datozenak, airean egon daitezke egunetan, eta ondoren, azido bihurtutakoan (sulfurikoa eta nitrikoa), milaka kilometrotara eraman daitezke. Poluitzaile nagusiak, hau da, sufre dioxidoa, nitrogeno dioxidoa eta amoniakoa (NH₃), erreakzioa egiten duten produktuekin batera ezartzen direnean, aldaketak eragiten dituzte lurzorua eta gainazaleko uren konposizio kimikoan. Prozesu honek ekosistemak aldatzen ditu eta horixe da "azidotzea".

EAEn oso desberdin daude banatuta azidotzea eragiten duten substantzia poluitzaileen isurketa portzentaia. Sufre dioxidoa industri jardueretatik isurtzen da neurri handi batean; nitrogeno oxidoen portzentaia handi bat, berriz, ibilgailuetatik dator. Amoniakoaren kasuan, lehen sektorean daude isurketen jatorri nagusiak. Azkenik, konposatu organiko lurrunkorren iturriak

Azidifikazioa



(SO₂, NO_x, NH₃ y KOL emisioak atmosferara)



Agenteek azidotzean duten gutxi gorabeherako eraguina (EAEko 1998ko Ingurugiro Egoera)

Poluitzaile toxikoak

(KOL emisioak atmosferara)



Agenteek KOL poluitzaile toxikoen emisioan duten gutxi gorabeherako eraguina (EAEko 1998ko Ingurugiro Egoera)

oso sakabanatuta daude, baina nagusiak errepidez egiten den garraioa eta disolbatzaileen eta beste hainbat produktu erabiltzea dira.

EAEko emisioa handia da EBko batezbestekoaren aldean (1994), batez ere, SO₂-igorleen kontzentrazio handia dagoelako (siderurgia edo petrolioaren errefinaketa). Nitrogeno oxidoen eta beste hainbat poluitzaileen kasuan, EAEk Europako batezbestekoarekin duen aldea ez da hainbestekoa.

nahikoa emisio handia

Europako ingurugiro-politikan, emisio poluitzaileak arras jaisteko asmoa dago.

Poluitzaile toxiko eta arriskutsuak

Lurzoruak, urak eta airea poluitzen dituzte eta, baliabideak narriatzeaz gain, gizakiaren osasunari eta ekosistemei eraso egiten die epe motzean edo ertainean. Poluitzaile hauek etengabe edo une jakin batzuetan (istripuak eta arrisku teknologikoak) sor daitezke. Lekuan bertan sortzen dira eta beren efektua sorlekuan gelditzen da edo eskualdera ere hedatzen da batzuetan.

***giza osasuna
eta ekosistemak***

EAEko konposatu organikoen isurketak neurtzeko sareak 1997az geroztik orduko 27 konposatu inguru ematen ditu. Hurrengo pausuan emisoreak eta isurketen inpaktuak dira identifikatu beharrekoak. Batez ere industria-sektorean erabiltzen diren disolbatzaileak eta trafikoa dira isurketen jatorria.


Bizkaia eta Gipuzkoako hainbat industri eraikinen inguruan, atmosferan jalkituzetik datozen metal astunak aurkitu dira, erreferentzia-mailatik gora daudenak.

Poluitzaile kimikoek, batez ere barneko uretako metal astunek, kontrol-estazioen % 5ean dute eragina, zeinak horniketa-urentzako E.B.ko Arteztarauan ezarritako balioa gainditzen baitu.

Ekintzen helburu nagusiak prebentzioa eta kalteen erremedioa aurkitzea dira, horretarako batez ere eskualdeen arteko eta nazioarteko kooperazioa eta politika sektorialak zainduz.

Eutrofizazioa

Lurzoruan eta uretan dauden gehiegizko elikagaiek sortzen dute: nitrogenoak (N) eta fosforoak (P), kasu. Neurritz kanpoko kantitate hauek naturaren prozesuen oreka galarazten dute eta hainbat ondorio ekartzen dituzte; hala nola ur garbiko iturriak gutxitzea, aisiarako lekuak mugatzea, paisaia hondatzea, etab.



Iturria: Van Leeuwen etab en moldaketa, 1996; Ikerketa Zentro Komuna - Europako Batzardea (datarik gabe)

EAEn bereziki larria da ibai-arroetako behealdeetan gertatzen ari den eutrofizazioaren hazkundera. Behatutako ibai-zatien % 30ean ura kalitate txarrekoa da. Arazoaren iturburua nekazaritzan eta hiritik doazen EDARetan tratatu gabeko urak itsurtzean dago.

Lurpeko urei dagokienez, kasu bakan batzuetan baizik ez da aurkitu poluzioa. Badira, hala ere, akuiferoen gainean sortutako hondakindegia, denborarekin poluzio-eragile izan litezkeenak.

Ekintzen oinarria eutrofizazioa eragin dezaketen prozesuak sorburuan bertan suntsitzea da.

Hondakinen kudeaketa

Hondakinen arazoa, kantitatearena ógero eta handiagoaó eta mota edo kalitatearena da. Mundu-mailako arazoa da eta oso estu lotua dago herrietako bizi-mailarekin. Horregatik, oso bestelakoa da lurralde edo estatu batean edo bestean.

EAEn, urteko 8,1 milioi tona hondakin sortzen dira; ingurugiroari dagokion gai honek ez du garrantzi txikia, beraz. Hondakin-kopuru hori honako mota hauetan banatzen da: nekazaritza eta abeltzaintzakoak, urteko 2.550 kt; industriakoak, urteko 4.711 kt eta hirikoak (HHS) urteko 805 kt.

Azken urteotan, Eusko Jaurlaritza, batez ere hondakin industrialez arduratu da, eta hondakin industrial berezien % 13 jaistea lortu du; kudeatu gabeko hondakinen % 33 ere jaitsi da eta, bestetik, hondakin industrial baliogaberen % 41 berriro erabiltzea lortu du.



EAEn hiriko hondakinak, urteko eta biztanleko 380 kg dira. Oso goitik bete dira, beraz, Europako Batasuneko Ingurugiroaren V. Esparru Programa hartan ezarritako helburuak.

Nekazaritzako eta abeltzaintzako hondakinei eman zaien irteera, berriz, erretzea izan da, solidoak zirenean, eta ongarri organiko gisara erabiltzea erdilikidoak zirenean. Bi kasuetan eragiten da inpaktua airearen, uraren eta lurzorua kalitatean.

Hondakinen arazo honetarako politikak hondakinak balioztatzera eta gutxiago sortzera jo du. Birziklatzeak guztiz murriztuko ditu erre edo hondakindegietara bota beharreko hondakinak eta, gainera, baliabide-iturri alternatibo bilakatuko ditu.

***gero eta arazo
handiagoa***

Hondakin-sorkuntza



Lurzoru poluituak

Industriaren edo hiriko jardueren ondorioz sortutako toxikotasun edo erre-aktibotasun handiko hondakinak dituztenak dira lurzoru poluituak.

Kaltegarriak izan daitezke gizakiaren osasunerako nahiz ekosistemetarako.

Ingurunean inpaktu handienetakoa eragiten duen fenomenoetako bat da foku jakinek sortutako lurzoruaren poluzioa.

EAEn, lurzoru polui lezaketan jardueren kokalekuak inbentario batean bildu dira (1998). Egoera, oro har, ez da ona: 2.000 lur baino gehiago dira poluituak egon litezkeenak eta gutxi gorabehera 1.000 hektareako azalera osatzen dute. Hauetan, 474 industria-aurri daude, 750.000 metro karratuko lurzoru hartzen dutenak, eta hondakindegia, 650 baino gehiago bildu dira.

inbentarioa

Herri-mailan jardunez gero, kasu berrien prebentzioa egingo litzateke, lehenbailehen berreskuratu beharreko lekuetan eskua sartuko litzateke eta hondatuta iritsi zaigun hori konpontzeko epe ertain/luzerako politika erabakiko litzateke.

Higadura

Lurzoruari bere funtzioak betetzeko gaitasuna murrizten dion fenomeno konplexua da. Degradazioa partikulen lekualdatzetik etor daiteke, edota bere elikagaiak galduta, lurzoruaren geruza emankorrena deuseztatetik: dela gehiegizko larreratzegatik, basoak murrizteagatik nahiz landareak kentzeagatik.

EAEn higaduraren eragina azalera osoaren % 20ra iritsia da; Arabakoa da kasu nabarmenena. Bizkaiko itsasora isurtzen diren uren kopurua kontuan hartuta (urteko 436 km³, gutxi gorabehera) honakoa kalkulaten da: gutxienez 43.600 tona izango dela materia solido soltea, ibai-arroetatik askatu eta, ibaien beheko ibilguetako alubioi-zelaietan gelditu gabe, itsasora heltzen dena. Fenomeno honen arrazoi nagusietako bat ibai-ertzak gehiegi kanalizatzea da, sedimentazioa galarazten du eta.


Babeserako politikak ezartzerakoan, garrantzitsua da garapenak edo nekazaritza edo beste hainbat jarduerarako berrikuntzek aipatutako gainazal begetalarentzako kalterik edo suntsipenik ez eragitea.

2. Gakoa

Ingurugiro-politika ezartzekoa den Lurralde Unitatean, beharrezkoa da ingurugiroari dagozkion gaien eta arazoen artean garrantzitsuenak zein diren neurtzea; baita gai zehatzagorik edo hedapen lokalekorik baden aztertzea ere. Europako eremuan honako hauek jo dira oinarritzotzat: klimaren aldaketa, biodibertsitatea galtzea, azidotzea, eutrofizatzea, hondakinen kudeaketa, lurzoru poluituak, poluitzaile toxikoak eta arriskutsuak, higadura eta hiriko ingurugiroaren narriadura.

Aurretik aipatutako gai hauekin batera nahiz gai zehatzagoen saila osatuz, beste gai hauek ere aztertzeko modukoak dira: ozono-geruzaren ahitzea, naturaren eta teknologiaren arriskuak, genetikoki eraldatutako organismoak, giza osasuna, itsasoko, itsas ertzeko eta landako eremuak.

Hiri-joera nagusiak



Hiri Ingurugiroaren andeatzea

Populazioaren habitateak hurbilen dagoen ingurunearen kalitateari dagozkion arazo partzial guztiak biltzen ditu. "Poluzio-mota berri"tzat jo izan diren gaiak dira. Orain arte arreta handiegirik bereganatu ez badute ere, giza osasunari eta bizi-kalitateari zuzen-zuzenean eragiten diotela onartzen da egun: zarata eta bibrazioak, usaina, hiriko paisaiaren degradazioa, autopilaketak, lekuen antolamendu eta sarbide zailak, etab.

EAEn egin den zarata-mapak 60 eremutan 70 dB(A) baino gehiagoko inpaktu akustikoa erakusten du; ibilgailuak dira poluzio-mota honen eragile nagusiak. Industriak, berriz, 44 gunetan sortzen du inpaktu akustikoa. Guztira, beraz, 100 eremu baino gehiago dira inguruan bizi direnentzat desatsegin.

Ingurugiroaren gai hau oso gutxi aztertu izan da EAEn. Bien bitartean, hiriko ingurugirorako politika hori falta izateagatik, honako hauek aurki daitezke:

- Industri aurriak, 333 ha katalogatuak, batez ere Ibaizabal itsasadarren ertzean.
- Hirietako energia-kontsumoaren hazkundera: %12-14 hamarkada bakoitzeko.
- Etengabeko ibilgailu-metaketak hirietan eta hauen ondoriozko diruxahutzea, hiriko ingurunea hondatzea eta giza harremanak txartzea.
- Hiri osasuntsu eta atsegina izateko, eremu berdetan, 12-15 m²/bizt. gomendatzen dira. Kontzentrazio handiko hiriguneetan, % 10 m²/bizt. daude.

Edozein arazo berrirekin gertatzen den bezala, egoera konplexua da eta oso desberdina eskualde bakoitzean. Lan-jarduna lokala da zalantzarik gabe, eskualdeko kooperazioa erabakigarria bada ere. Ekitaldi batzuk epe motzekoak izaten dira eta tratamendu ebaluagarrikoak; beste batzuk, aldiz, pixkanaka konpontzekoak eta epe luzera begira jarrita bakarrik antola daitezkeanak.

2.1.2 Agenteak

Lurralde bateko Ingurugiroaren Egoera irudikatzen duten ingurugiro-arazo edo gaiak ebaluatu ondoren, bi galdera sortzen dira: nondik datoz arazo horiek? eta nork dihardu konponbide bila? Horiek dira agente edo eragileak.

Poluzio-era berriak

arazo konplexu eta desberdina

Agenteak

Ingurugiro-kalitatea
Sustatuera eskatzen dute

- Administrazioa
- Publikoa

Ingurugiroan presio
egiten dute

- Administrazioa
- Kontsumitzaileak
- Helburu-taldeak

Horiek denek sortzen dituzte arazoak ingurugiroan eta horiek denek dute konponbidean parte hartzeko erantzukizuna. Parte hartzearen maila eta lan-banaketa, berak sortu duten arazo hori konpontzeko erakutsi duten gaitasunaren araberkoa izango da etorkizunean.

ingurugiro-gaietan denek laguntzen dute

Gainera, eragileetan bik irtenbideak eskatzeko eginkizuna dute: Administrazioak eta hiritarrek.

Puntu honetan, EAEko ingurugiroaren egoeran eta politikan eragile sozioekonomikoei dituzten erantzukizunak eta eginkizunak aztertzen dira laburki.

Administrazio Publikoa

Ingurugiroaren egoerarik onena eta hiritarren bizi-kalitatea bilatzea eta lortzea bultzatzeko ardura du. Bere erantzukizuna xehetasun handiko markoa ezartzea da, argia eta egokia, batetik erkidegoen arteko eta nazioarteko lan-kidetzarako eta, bestetik, lan-jarduna deszentralizatzeko eta ekintzak arazoaren jatorrira hurbiltzeko.

esparruak ezarri

Administrazioaren lana ez da arazoak konpontzen zuzen-zuzenean parte hartzea, baizik eta berrikuntza, informazio, trebakuntza eta ekintzarako jarduerari laguntzea. Bere gain har dezake ingurunea konpontzeko teknika ego-kien kostua, gainerako eragileentzat handiegia denean. Azken batean, ingurugiroa eta ekonomia garapen jasangarrirako norabidean integra daitezen berme-emaile da.

integrazio-bermatzailea

Dena den, Administrazioak ere eragiten du inpaktua, azpiegiturak eraikitzean edota gauzatzen dituen planen bidez edo hauen ondorioz. Halako plan bat martxan jartzerako edo azpiegiturak kontratatzerako, garaiz egindako aurreikuspenak eta ingurugiroarekiko errespetuzko jarrerak agertzeak erudugarri egiten du eta, aldi berean, jarduera horien amaieran bildutako emaitzak sendotu egiten ditu.

Beraz, Administrazioa ingurugirorako eragile nagusia da alde handiz; horregatik aitortzen zaio hainbesteko erantzukizuna Ingurugiro Sistemaren Egoeran.

a) Eusko Jaurlaritza

Hurbileko beste zenbait Administrazioekin alderatuz gero, Eusko Jaurlaritzak esperientzia aberatsa bildu du ingurugiro-arazoaren aurrean eta subsidiaritate-printzipiotik datorkion erantzukizuna bere gain hartzen. Aro



honetan EAEn aldaketa ekonomikoei eta gizarte-mailako erronkei aurre egin behar izan zaie eta, hala eta guztiz ere, ingurugiro-politikan nahikoa emaitza onak izan dira.

Hasteko behintzat, EAeko Administrazioa mugatuta dago oso, arauak ematerakoan. Autonomi Erkidegoa izateagatik, Estatuak ezarritako oinarritzko arauen barnean jokatu behar du. Era berean, ez du sarrerarik Estatuaren eskumenari bakarrik dagozkion nazioarteko hitzarmen eta planen programetan. Hori dela eta, lan-esparru mugatua du oso, eta muga politikoez gaindiko ingurugiro-arazoak konpontzeko (klima-aldaketarena, esaterako), emisio-foku jakinetan jardunez edo erkidegoez haraindiko erakundeetatik datozen plan eta programak ezarri bakarrik lan egin dezake.

Garai honetan, lau norabidetan lan egin du Eusko Jaurlaritzak:

- Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorra onartzea: hurrengo hamarkadetarako edozein ingurugiro-politikatarako benetako abiapuntua.
- Erantzukizun egileak eta eragileak Lurralde Historikoetara, Udaletara eta erakunde zehatzetara eskualdatzea.
- Ingurugiroaren gaineko ideiak Administrazioako beste lan-esparru batzuetan txertatzea.
- Baliabideen kontsumorako eta poluzioaren prebentzio edo zuzenketarako neurri eraginkorrak hartzea, horretarako sortutako Erakunde bidez (IHOBE, CADEM, etab.).

Dena den, hartutako neurriek eta ekintzek zenbait muga erakutsi dute:

- Nolabaiteko egokitu ezina eta malgutasun falta, alderdi arau-emaitzari eta zigortzaileari lehentasuna emateagatik.
- Zenbait konponbide, askotan guztiz beharrezkotzat jo izan direnak, ezin izan dira gauzatu aurrekontu-arazoengatik edo sailetan ezarritako lehentasunengatik.
- Administrazioako prozedurak, arauak eta legeak, kasu batzuetan, lege- eta ingurugiro-erakunde bakarrean biltzeko daude oraindik, eta beste batzuetan, garapen zehatzaren zain daude.
- Administrazioako mailen arteko harreman konplexuek ez dute asko lagundu eta zenbaitetan asmoak gehiegi eta emaitza zehatzak urriegi izan dira.

b) Foru Aldundiak eta Udalak

Garai honetan politika eraginkorrak jarri dituzte abian beren Lurralde Historikoetan.

lekuko jarduera, helburu globalak

jarduera



Baliabide naturalen kudeaketa izan da gehien garatutako eskumena, batez ere basoak, natur guneak eta urak.

Inbertitzeko edo finantzatzeko gaitasuna, berriz, ez da behar adina ustiatu; gainera, ingurugiroaren gaineko inpaktua duten azpiegituretarako joan dira, hain zuzen, baliabide gehienak.

Azken bizpahiru urte hauek arte, ingurugiroarekiko udal-politikak apalak izan dira. Berriki piztu da ingurunearen kalitateak udalarentzat izan lezakeen aberastasunaren balioarentzako sentiberatasuna, eta betiere, paisaia berreskuratzeko esperientzia pilotuetatik edo ekonomi dinamizazioko proiektuetatik abiatuta. 21 Agenda Lokala programak oihartzun handia izan du eta berak ezarri du sentsibilizazio honen inflexio-puntua; bere ingurugiro politika propioa eta hiritarrarengana hurbiltzen dena egiteko gogoa agertu duten udalerrien kopurua igo egin da EAEn.

Hala ere, ez da udalerrien arteko elkarlanik sortu; are gutxiago, Europako antzeko udalerriekiko esperientzia-trukaketa. Gabezia hau nabaria da beste esparru batzuetara jotzen denean; hala nola eraikuntza, hirigintza, udal-antolamendu eta abarretara. Ingurugiro-gaietan trebakuntza handiagoa beharko litzateke, 15.000 bizt. baino gutxiago dituzten udalerrietan, batik bat. (EAEko % 87).

Mankomunitateak dira salbuespena. Udalerrien artean sortuak dira oinarriko zerbitzuetarako: hiriko hondakin solidoak biltzeko nahiz ur-hornidurarako. Nolanahi ere, zerbitzu hauen kostu errealean barneratzea ez da optimizatu Administrazioaren eta FEDER edo EGAEFaren dirulaguntzak deskontatu direlako; ez da, beraz, mahaï gaineratu baliabideen aurrezpenari buruzko eztabaida publikorik.

Epe ertainera, eragile emisoreengandik gertu garatuko da ingurugiro-politika eta udalek estrategia berriei jarraitu beharko diete.

Publikoa

Gizarteko taldeak osatzen du bizi-kalitate jakin bat lortu nahi duen ingurugiro-politikaren oinarria. Horregatik, garrantzitsua da bere eginkizuna, berak erabakitzen baitu noraino heldu behar duen politika horrek -edo hel daitekeen-, eta ekintzetan neurri onargarriak zein diren.

Administrazioa bezala, arazoaren bi aldeetara dago jarria: bateko, ingurugiroaren kalitate-maila bat eskatzen dute -indar handiagoz nahiz txikiagoz-, baina bestetik, baliabide naturalak ahitzen dituzten ondasun eta zerbitzuak

21 Agenda Lokala

kostuak nazioartekotzea

ingurugiro-politikaren oinarria



eta beren bizitza-zikloan hondakinak sortzen dituzten produktuak eskatzen dituzte.

Ingurugiroaren ikuspegitik funtsezko zeregina dute honako hauek: a) kontsumitzaileek, baliabideak, produktuak edo zerbitzuak eskatzean, sistemari presioa egiten diote, ingurugiroari eraginez; b) ingurugiro-arazoren batek zuzenean eragindakoez, eta beren jokaera arazo horren edo horrentzat pentsatutako konponbidearen arabera baldintzatua daukatenez; c) "ingurugiroaren abangoardia" edo Ingurugiro-sistemaren iraupenerako eta hobekuntzarako presioa egiten duten taldeak.

Isurtzaile objektiboak

Ingurugiro-arazo askoren eragileak dira, beren ekonomi jarduera dela medio. Ingurugiro-arazo horien sorreran erantzukizun larriagoa edo arinagoa dute, lurraldean duten dentsitatearen, jarduera-mailaren, jarraitutako prozesuaren, etab.en arabera.

Bakoitzak egiten duen ekarria, EAEko kasuan, hurrengo grafiko hauetan agertzen da, kualitatiboki eta kuantitatiboki zehaztua (lehenbiziko hurbilketak).

Publiko kontsumitzailea


Ingurugiro Sistemaren gainean presio egiteko duen ahalmena erabiltzeko edo kontsumitzeko hautatzen dituen produktuen arabera da. Presioa egiten du, baliabide horiek kontsumitzeagatik, eta eskatzen duen produktu horren bizitza-zikloan barrena beste eragile batzuek egiten duten presioaren azken erantzulea izateagatik ere bai.

Erabileraren eta kontsumoaren inguruko erabakiak hartzeko erritmoa norberaren balore-eskalaren arabera da oinarrian; hau da, gizarte-ereduaren, aberastasuna sortzea bera helburutzat hartzearen, baliabide orokorren ahalmenaren, etab.en inguruko balore-eskalaren arabera. Horregatik, informazioa, ezagutzaren transmisioa eta hezkuntza -zentsurik zabalenean- bere jokabidea baldintzatzen duten elementu funtsezkoak dira.

***balore-eskala,
kontsumo-erabakiak***

EAEren kasuan -2,1 milioi biztanle eta industria-sektorearen garrantzia handia (% 37)- hiritarrek zuzenean egiten duten elementu poluitzaileen emisioa ez da oso garrantzitsua; bai, ordea, kontsumo-, turismo- edo garraio-jardurretan egiten duena.

Publikoa



Publikoa sektoreak ingurugiro-gaietan duen eragina (EAEko 1998ko Ingurugiro Egoera)

Hamarkada bat bada populazioa ez atzera eta ez aurrera gelditurik dagoela, baina kontsumitzeko eta erabiltzeko gaien eskaera gero eta handiagoa da, batez ere, inbertsio ekonomikoari lotutakoena (etxebizitza eta ibilgailuei lotutakoa, esaterako). Horrek ingurugiroaren gaineko presioa haztea dakar, baina batik bat zenbait baliabide kontsumitzea, nahiz hauek urriak izan (energia eta ura) eta ingurugiroaren gainean presioa eragin (hondakinak, airea, habitat hiritarra).

Hori guztia, azterketa kontrastaturik ez egon arren, EAEko herritarrengan ikusten den balore-eskalaren ondorio da itxuraz. Balore-escala honek kontsumoarekin eta korresponzabilitatearekin zerikusia duten erabakiak aldatzeko orduan, hesi-lana egiten du, bidea itxiz. Beste eragileek -batez ere Administrazioak- arazoak zuzentzeko ekintzak erakusten ez badituzte, ez da erraza izango herritarrak ingurugiroarentzako leunagoak izango diren erabakiak hartzea bultzatzea. Ekintzak honakoak izan daitezke:


- Produktuei eta hauek ingurugiroan duten inpaktuari buruzko informazioa hobetzea.
- Hiritarren ikasketa-zikloko maila guztietan ingurugiroaren esparruko hezkuntza sakontzea.
- Zeresana duten erakundeekin eta presio positiboa egiten duten taldeekin akordiotara heltzea.
- Produktzio-kateen eta etxebizitza, mugikortasun eta elikaduraren inguruko ezaugarrien ebaluazioa egiteko Lan-taldeak sustatzea.
- Hiritarren jokabide eta hauen aldaketekin eta giza jarduerak giza habitataren gainean duen inpaktuarekin lotua dagoen ikerketa sozio-kulturala bultzatzea.

Lehen sektorea

Nekazaritzako (nekazaritza, abeltzaintza, basogintza) eta arrantzako produktio-esparru guztiak biltzen ditu; baita elikagaien lehen prozesatzaileak ere. Garai batean nekazaritza Ingurugiro Sistemari integratua zegoen, edo behintzat errespetatu egiten zuen. Gaur egun, berriz, ingurune naturalaren gainean presio egiten ari da, ustiapen intentsiboagoetarako joera, plagiziden eta ongarrien erabilera, hondakin organikoaren deuseztatzea, etab. direla medio.

Sektoreak EAEn duen garrantzia txikia da (BPGren % 2); hala ere, badu bere lekua barnealdeko zenbait lekutan (batez ere Araban: landutako lurren % 45) eta hainbat tokitan ekonomi jarduera produktibo bakarra da (kostaldeko herrietan edo mendialdeko ibarretan).

Lehen Sektorea



Lehen sektoreak ingurugiro-gaietan duen eragina (EAeko 1998ko Ingurugiro Egoera)

Nekazaritzak, berez, gaitasun funtzionalak eta aukerak eskaintzen ditu ingurugirorako, bai lurzoru-kontserbaziorako, bai eta paisaia-aniztasun eta hidrologi sarearen egonkortasunerako ere.

aukerak

Jarduera honetatik datozen hondakinak (urtean 300.000 tona) eta higadura, eutrofizazioa, poluitzaile toxikoak eta biodibertsitate-galerak lotzen badira, derrigor hasi behar da esparru honetarako politika jasangarriaz pentsatzen.

politika jasangarria

Euskal lurretako ustiapen-motagatik, abeltzaintza nekazaritzari lotuta dago. EAEn 20.000 inguru dira erroldan bildutako ustiategiak eta bere inpaktu nagusia akuifero, iturri hidrologiko eta azaleko ubideetarako oso erasokorrrak diren hondakin organikoen bidez sortzen dute.

Abereen hondakinak tratamendu zuzentzaile baten bidez deuseztatzearen aldeko politika ezartzean, arazo batekin egiten da topo: ustiategi gehienen baliabide faltarekin eta abelazkuntza intentsibo eta ikuiluratuekin lehiatzea are zailago egiten dien gehiegizko kostuarekin. Hondakin organikoak urteko 2.145.000 tona direla kalkulatu da.

Bestalde, EAeko azalera osoaren % 53,3 zuhaitzez estalita dago. Esan beharra dago eragileek duten basoetako ekosistema babesteko sentsibilizazioa, kontzientziazioa eta parte-hartzea txikia dela eta Euskal Basoetarako Plangintzak (1994), Foru Aldundiek jarraitu beharreko bideak ezartzen dituenak, eskatzen duela naturaren erabilera eta kudeaketa mundu-mailan alor horretan gertatzen ari diren aurrerapen zientifiko eta teknikoekin batera joatea.

Energiaren sektorea


Energia elektrikoa edo erregaiak ekoizten eta banatzen, baterako sorkuntzan, biomasako energian eta petrolioaren errefinaketa lan egiten duten konpainiak biltzen ditu. Ingurugiroarekin duen harremanaren ezaugarri nagusiak baliabide natural urriak erabiltzea eta ingurugiroan zenbait efektu eragitea dira (klima-aldaketa, azidotzea).

EAE defizitarioa da energi baliabideetan, baina ekonomia garatuko lurraldeen mailan dago kontsumoan. Energia gehien kontsumitzen duena industria da oraindik, baina garraiorako eta etxeko erosotasunerako kontsumitzen den energia-kopurua industriarenetik oso hurbil dabil.

Euskal Administrazioetik iturri berriztagarrietan eta aurreztean oinarritutako ingurugiro-politika jarri da martxan. Horrek atmosferara egiten diren emisioak hobetu egin ditu pixka bat. Dena dela, abiatutako politika horren lehe-

emisio berriak

Energia Sektorea



Energia sektorea ingurugiro-gaietan duen eragina (EAeko 1998ko Ingurugiro Egoera)

nengo helburua lehiakortasuna izan da, eta zeharkako helburua baizik ez ingurugiroa babestea.

Hala ere, epe ertainean, gehiago murriztu beharra daude jarduera hauetatik atmosferara egiten diren emisioak. Helburu horri garraiorako ibilgailuetatik doan emisioa edo gas poluitzaileen emisio difusoa ordezkatzeko (epe motzera, murrizteko) politikaren behar larria erantsi behar zaio.

Politika sektorialean oinarrizko baldintza dira iturrien dibertsifikazioa eta energi errendimendu hobea. Talde estrategiko honek duen garrantzia, hazkundearen faktore guztiekin duen harreman estutik dator (garraioekin, industriarekin eta bizilekuekin).

dibertsifikazioa eta errendimendua

Industria Sektorea

Oinarrizko industria (siderurgia eta kimika) eta manufaktura-industria bil-tzen ditu. Sektore anitza da, produkzio-bolumenean garrantzitsua, hetero-geneoa jarduera aldetik, baina oso homogenea Ingurugiro Sistemari eragi-ten dion presioan; prozesuen antolakuntza eta motak oso antzekoak baitira.

Eragileetan poluitzaileena izan da, baina gaur egun, berritzen ari den sekto-reara izaki, zenbaitetan jarduera garbia lortzera iritsi da, beste zenbaitetan gutxi poluitzen duena eta, batzuetan, efektuak zuzendu ere egin ditu (ingu-rugiro-teknologiako industria berriak edo berreskuratze eta birziklapen-industriak daudelako).

berritzen ari den sektorea


Sektore hau funtsezkoa izan da EAEren ekonomiaren garapenean, eta azken hamarkadako aldaketak aldaketa, oraindik EAEko ekonomi jardueraren % 37a da. Gainera, ohizko industriatik jarduera industrial berrietarako aldake-ta gertatu da (3. belaunaldi industrial), Enpresa Txikiz eraikia (guztira 14.354 industri establezimendu).

Bereziki jarduera industrialaren aldaketa hau eta arauak egoki eta sistemati-koki ezartzea direla medio, atmosferara egiten diren emisio poluitzaileen kopuru absolutua % 40 jaitsi da.

Hala ere, bada oraindik baliabide berriztaezinen kontsumoan oinarrituriko hazkundearen eta ingurugiroaren kalitateari eutsi nahiaren arteko bat etorri ezina.

Ingurugiroaren gaineko presio-egoera hau guztiz zuzentzeko eta azpikoz gain jiratzeko mugak jartzen dituen faktorea euskal enpresaren egituran ber-

Industria Sektorea



Industria sektorea ingurugiro-gaietan duten eragina (EAEko 1998ko Ingurugiro Egoera)

tan dago: egokitze-kostuei bakarka aurre egin ezin dien enpresa txikiak dira eta neurri eta arau orokor edo bateratuak ezartzea inposiziotzat daukate, onuratzat baino gehiago.

egoera alderantztea

Aurreko legealdian industriari ezarri zaion ingurugiro-politika ez da izan behar bezain sendoa eta integratzailea. Hemendik aurrera finkatu eta jarri beharko dituzte martxan azkena landu dituzten planak Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak eta Industria sailak. Esaterako, fabrikatutako produktu bakoitzaren bizitza-zikloaren analisiak egin beharko dira, ekodiseinurako joeraren arabeko erreminta berritzaileak sartuz; hau da, produkzio garbia helburutzat hartu produktuaren sorreratik bertatik.

ekodiseinua

Sektore honek ere ingurugiro-arazoentzako konponbideak aurkitzeko garaian zeresan ugari izan dezakeen eta norabide bat baino gehiagotan era aktiboan lan egin dezakeen sentimendua gero eta zabalduago dago.

Garraio-sektorea

Sektore anitza da berez; bere baitan biltzen ditu tren, itsasontzi nahiz hegazkinen garraio-konpainiak (merkantziak eta bidaiariak) eta ibilgailu komertzial nahiz pribatuen jabeak.

Mugikortasuna funtsezko faktorea da gizarteko jardueren eta garapenaren funtzionamendurako. Horregatik onartzen da nazioartean garraio-sektorea poluzio-eragile handia dela.


mugikortasuna

Bidaiarien eta merkantzien errepideetako garraioa hazi egin da Europako Aduana Elkartea indarrean jarri zenez geroztik. Irungo mugan bakarrik, urtean 4.000.000 tona baino gehiago dira pasatzen diren merkantziak; bidaiariak, berriz, 1.200.000 trenez (ibilbide luzekoak) eta 5.000.000 errepez.

EAEko gastu publikoaren % 6a garraioak eta bere azpiegiturek bereganatzen badute ere, disfuntzionaltasun handiak suma daitezke, gero eta leku gehiago hartzen ari diren automobila eta kamioia direla bide. Inpakturik handiena erregaien kontsumoak eragiten du eta ez zaio hori ordezkatzeko duen alternatiba handirik ikusten.

Epe ertainera energia eta ingurugiroaren presioa igo egingo da, automotore/automobilen kopurua urtean % 2-3 inguruan ari baita hazten. Horri, EAEko hiru aireportuetan dagoen hegazkin-erabilera gero eta handiagoa erantsi behar zaio.

Garraio Sektorea



Horregatik guztiagatik, behar-beharrezkoa da Garraioaren eta Ingurugiroaren Plana egitea, Administrazioaren lan-esparruko bi arlo haue-
tan, ikuspegi homogeneousko lehen urrats integratzailea egitearren.

Eraikuntza-sektorea

Ingurugiro-politikarako garrantzitsua da eraikuntza-sektorea, gizarteko funt-
sezko zenbait beharrek oso lotuta baitago. Etxebizitza, lan, mugikortasun
eta aisiarako beharrek berekin dakarte eraikitzeo jarduera eta honekin
batera datozen arazoak: hondakinak eta poluzioa. Bestetik, berriz, ingurugi-
roaren kalitateak ezar diezazkioke mugak etxebizitzak eremu hiritarretan
edo komunikazio-ardatz nagusien inguruan eraikitzeari. Lehengaiak kontsu-
mitzeaz eta hondakinak sortzeaz gain, sektore hau lurzoruan, espazio eta
inguruetan inpaktu bisual handiena sortzen dutenetakoa da.

EAEko leku gehienetan (Araban ez), nabaria da kontrolik gabeko hazkundera
eragiten ari den hiriko presioa. Degradatutako lurzoru merkeak balio eran-
tsi handiagoa duten helburuetarako erabiltzea sustatzen da, eta gero, hortik
ateratuko plusbalio handietatik gutxi inbertitzen da ingurunea berreskura-
tzeko.

Sektoreko gune erabakitzailearen egitura konplexuak mugak jartzen dizkio
eraikuntza-prozesurako teknologia eta materialen berrikuntzak sartzeari eta
segurtasun- eta kalitate-arauen aurreko jarrerak liberalizatzeari. Legearen
aldetik hutsune handia dago eta handiagotzen ari da, sektore honetan ez
baitago Administrazioaren jarduera koordinaturik.

Egoera hobetzen lagun dezake, beren azken produktuen errendimendua
hobetzeko ahalegina eginez gero (etxebizitzetarako material isolatzaileak,
arkitektura bioklimatikoa, materialak berriz erabiltzea, ...).

Merkataritza eta turismoa

Egilearen eta kontsumitzailearen arteko eskailera-maila garrantzitsua da txi-
kizkako merkataritza. Bere eginkizuna ez da lotura-lan hutsa izaten, ordea,
ingurugiroari dagozkion alde guztietan bete-betean parte hartzen du eta.


Txikizkako merkataritzan 40.000 enpresa daude gutxi gorabehera.
Merkatarientzako lanerako oinarritzko elementuak, hondakinak eta energia-
kontsumo murriztea, bilgarrien kudeaketa eta kontsumitzaileentzako
informazioa izango lirateke.

erabaki-kate konplexua

elkarlana


kontsumo-kateko maila

Eraikuntza Sektorea



Eraikuntza ingurugiro-gaietan duten eragina (EAeko 1998ko Ingurugiro Egoera)

Merkataritza eta Turismoa



Merkataritzak eta Turismoak ingurugiro-gaietan duten eragina (EAeko 1998ko Ingurugiro Egoera)

Turismoak ingurunearen gainean izan dezakeen inpaktua, turismo-motaren, turisten jokaeraren eta zerbitzuen kalitatearen arabera da.

Gero eta sektore garrantzitsuagoa da EAEko ekonomian (BPGren % 5). Milioi bat inguru izan ziren 1995ean heldutako bidaiariak eta urteko % 5etik gorako hazkunde-erritmoak egiaztatu ziren.

Ingurugiroaren gaineko inpaktua biztanleria mugikorraren masa handien presiotik eta urtaroko efektuetatik dator. Maila lokalean izaten du eragina, normalean erabiltzen direnak baino baliabide gehiago erabiltzeagatik eta hondakin eta poluzio gehiago sortzeagatik.

Azken batean, hiri handi bateko biztanleriaren presioaren parekoa da. Baina bada desberdintasun bat: zail da oso, pasadizoko populazioari kontzientziazioa eta ardura barneraraztea.

Kontrol eta planifikazioaren, eta lurralde osoan barrena banatuko den turismo hautatuaren aldeko apustuak, eramangarri egin dezake ingurugiroaren gaineko karga.

2.1.3 Ekonomia eta Ingurugiroaren integrazio-politikarako tresnak

Ingurugiro-politikarako lanabesak Administrazioak alor honetako politikaren helburuetara heltzeko erabiltzen dituen bideak dira. Antolatzeko eta arautzeko tresnak dira normalean, ekonomikoak eta sozialak. Bere helburua gizabanakoen, enpresen eta taldeen jokabidea nahi den hartara aldatzea da. Era berean, jarraipena egiteko eta adostutako akordioak nahiz eragile guztien-tzako ezarriak dauden funtzionamendu-arauak betetzen direla ziurtatzeko sistemak finkatu nahi dituzte.

Ingurugiro-politikaren kasuan, parte hartzen duten lanabesak honako hauek dira:

Antolamendua eta arauak

Antolamenduaren eginkizuna ekintza partikularrak helburu orokorretan integratuko dituzten lurralde- eta sektore-planak eta/edo programak egitea da; proiektu horientzako ekonomi eta finantza-baliabideak ere berak jartzen ditu. Maila lokalera etorrita, derrigor bete beharreko Ordenantzak dira.

3. Gakoa

Ingurugiro-politika ezartzekoa den Lurralde Unitatean, beharrezkoa da ingurugiro-arazoei presioa egiten dieten eragileen garrantzia eta eragina neurtzea eta, espazio-eremu zehatzagoetan, Ingurugiro Sistemarekin duten hartumana identifikatzea. Esparru lokalera egokitutako politika zehatzei ekiteko, kontuan hartu beharko dira, gutxienez, administrazioak, hiritarrak, lehen sektorea, energia-sektorea, industria, garraioa, eraikuntza eta merkataritza-eta turismo-sektorea.

Arauek, aldiz, jarrerei buruzko gutxieneko agente zehatz bat ezartzen dute eta, eraginkorrak izateko, ulergarriak, gardenak eta bidezkoak izan behar dute. Arauen alderdi hau sakon garatu izan da ohizko ingurugiro-politikan, baina lotura falta nabaria izan da efektuaren eta lehengo egoerara bihurtzearen artean, edo zenbait eragile estu hartu diren bitartean beste zenbaitekin eskuzabal jokatu da oso.

Lanabes hauen planteamendu arrazionala eginda, sakontze-bidea hainbat norabidetara egin daiteke:

- Tresna arau-emaileek Estatuko oinarritzko legeak eskuduntzei dagoen mailan garatu dituzte.

Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorren barruan egin da euskal erakundeei dagozkien legeak egiteko eta betearazteko ahalegina, eta Lege honi lotu nahi izan zaizkio Lurralde Historikoen Legea errespetatzen duten eskuduntzak eta funtzioak. Lehen urratsa ingurugiroari eragiten dioten jarduerak ordenatzea izan da: batez ere, hondakinen eta lurzoruaren gaiekin lotuta dagoena bildu da.

Lege Orokorra

Gabezia nabarmenenak, koordinazioan eta Jaurlaritzako beste Sail batzuetako garapen paraleloetan izan dira. Horrek eragile zehatzagoi loturik dauden plan eta programa sektorialeiei eragiten die eta interferentziak sortzen dizkie.

Epe ertainera, Europako legeria sakondu eta garatzeaz gain, kontuan hartu behar da Europako Batasunean (araudi gehien jatorria) hausnarketa eta berrikusketa-prozesuan daudela, arau hauek sinpleago eta horizontalago egitearren eta, halaber, egungo politika sektorialekin integratzaileagoak diren Esparruko Legeetara biltzeko.

sektore-politiken integrazioa

- Atal honetan, eta lurraldeko ingurugiroaren kalitateari begira jarrita, Lurralde Antolamendurako lldoak landu dira, ingurune fisikoaren aukerei arreta berezia eskainiz. Orain, eskema orokor honetatik Lurraldeko Plan Sektorial eta Partzialetaranzko aurrerapausoa ematea falta da.

- Bestetik, erregimen zigortzailea ezarri da, ikuskaketa eta zaintza-zerbitzuen bidez, eta alarmaren ondoren esku hartuz. Ikuskaketa-zigorra bikotean oinarritutako erregimen hau diskriminatzailea baino gehiago eredu-emailea izan dela esan daiteke. Lantzeke dagoena, Ingurugiro Sistemari denbora errealean jarraipena egitea da, preben-



tziozko babesa egin dezan (atalaseen eta tolerantzien erregimena), sektoreen, lurraldeen, eskualdeen, etab.en egoeraren arabera.


- Ingurugiroaren plangintzak ere egitura-integrazioaren behar handia du. Gai honetan aurrera egin da integrazioa komenigarria dela dioen ideia finkatzean; hala eta guztiz ere, hori dena zehazteko lana eta aplikazio praktikoa egiteke daude oraindik.
- Ingurugiro-arauak oro har beteko diren eran eta beren ezarpenak lekarkeen gastuaren banaketa orekatua egiteko moduan (batez ere Enpresa Txiki eta Ertaintzat) egin behar dira. Eskakizun hauen funtsezko multzo bat sinpletzea eta kodetzea izan daiteke ingurugiro-gaietan dauden arriskuen aurreko prebentzioa, babesa eta konponketarako Kontzertazio edo "Borondatezko akordio"ak sustatzeko eta hedatzeko lehen pausoa.
- Tresna publiko hauen atal garrantzitsu bat baliabideen erabilerarik egokienerako, produkzio garbiko prozesuetarako, berreskurapenerako eta birziklapenerako Laguntza Teknologikoko programak dira. Proiektu berritzaileak eta BATetan (Eskueran dauden Teknologia Onenetan) oinarritutakoak, aurretik sartutako dirua atzera produktibitateagatiko etekinetan epe ertainera jasotzen dutenak (arrisku partekaturiko garapenak) sartzen dira hemen

Tresna ekonomiko-finantzarioak eta zergak

Eragileen jarrera-aldaketa sustatzea dute helburu eta, horretarako, ingurugiroa babestearen kostuaren zati bat bere gain hartzen dute erakunde publikoek. Lan-tresna hauek erabiltzeko ohizko bidea finantzaketa-fondo espezi-fikoak ezartzea izan da: dirulaguntzak, kasu. Lanabes-mota hauek kontzientziazio apaleko garaian erabiltzen ziren disfuntzioak zuzentzeko. Gabezia hau Administrazioari berari ere badagokio, ia ez baitu fondo espezi-fikorik bideratu -esaterako, FEDER edo EGAEF bezala- ingurugiro-gaietarako. Horrenbestez, baliabide erabilgarriak urriak eta inbertsiorako partiden adar bat izan dira (inbertsio-partida horiek, hain zuzen, zeresan handia dute hemen). Europako Batasuneko bateratze-politika bera ere alde batera uzten ari da sistema hau.

Beharrezko bihurtzen ari da, hortaz, tresna berritzaileagoak eta eraginkortasun/kostu aldetik errendimendu hobea dutenak probatzea. Gaur egun horrelako tresnak bultzatzea aztertzen ari dira.

berrikuntza-tresnak



Filosofia horren barnean daude, pizgarri fiskalak, jabari publikoaren aprobetxamenduetatik tasa publikoak eta zerbitzuak egiteagatik ordainsari publikoak. Horrekin guztiarekin, presio-eragileei pasatu nahi zaie jardueren kostuaren zama eta kostu errealak barneratzera bultzatu nahi dira, gero optimizaziorako neurriak har ditzaten.

kostu errealak

Halaber, beste herrialde batzuetan pizgarri ekonomiko berriak ari dira agertzen. Besteak beste, aipatzekoak dira, "jaulkipen-baimen edo -eskubide trukagarriak" esaten zaion taldean bildutakoak. Eragileen arteko elkarlanean eta "ekotasa" edo "tasa berde" direlakoetan oinarrituta daude. Bera da, egun, gehien zabaltzen ari den joera.

sustapen ekonomikoa

Egoera hauetan guztietan, neurri fiskalen laguntza behar da tasa eta baimen horiek eraginkorrak izan daitezken. Neurri horiek aldatzeko eta egokitzeko ahalegina saritzea lortzen dute, Administrazioari gutxi kostatuta. Ezartzearen neurri fiskal batzuk honakoak dira, esaterako: ingurugiroaren gaineko presioan aldaketak egin direla ikusita, tasak itzultzea; "inbertsio berdeen" kasuan, tasak murriztea; "inbertsio berdeetarako" amortizazio libreko eta kontabilitate-depreziazio irizpideak ezartzea; energia aldatzeko edo aurrezteko inbertsioak kenkaridunak izatea.

Azkenik, ingurugiroko zenbait gaitan, Segurtatzea bultzatu beharreko tresna izan daiteke. Esparru honetako legeak ez dira egokitu oraindik eta poluitze puntualetako efektuak amortizatzeko izan litekeen potentziala kasu jakin batzuetan bakarrik balia daiteke.

Ingurugiroa zaintzeko eta kudeatzeko lanabesak

Gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dira, ingurugiroa hobetzeko erabiltzen diren bideak hauek baitira: kontsulta, konbentzitzea, elkarlana, hezkuntza-proiektuetarako erraztasunak eta sustagarriak ematea, parte hartzeko ariketak, erakustaldiak, etab.

Lanabes horietan honakoak aipa daitezke:

Ingurugiro-kudeaketa eta -ikuskapenen sistema.

Komunikazio-estrategietan sartzen dira lan-tresna hauek. Enpresetako ingurugiro-kudeaketa ebaluatzen dute eta publikoari eragile horien jokaeraren berri ematen uzten dute. Eragileen arteko akordioa sustatzeko abiapuntu egokia dira; izan ere, beren jardueretan ingurugiroaren kalitatearen alde lan egiten dutenentzako diskriminazio positiboa egiten dute. Hala, eragile

Garraioaren* errentek estalitako kanpo-kostuen proportzioa**

hauek irudi ona eta ospea hartzen dute eta kontsumitzaileari apurka-apurka "bere" bizitza-kalitatean inbertitu duten enpresei erosteko kontzientzia pizten zaio.

Emaitzak honako hauetan ikusten dira: enpresaren ziurtagirietan eta ekoetiketan edo produktu horrek ez duela bere bizitza-ziklo osoan ingurugirorako kalterik adierazten duten bereizgarrietan.

Ingurugiro-gaietarako Hezkuntza, Trebakuntza eta Sustapena

Hiritarren eta erakundeen artean, ingurugiro-arazoak prebenitzera edo era eraginkorrean konpontzera bideratutako ezagutza, informazioa, jarrerak, baloreak, jokaerak eta trebetasun praktikoak hedatzeko egiten dena sartzen da atal honetan.

prebentzio-baloreak

Ingurugiro-gaietako hezkuntza, ikerketa eta sentsibilizaziorako jarduerak helburu hauek izango ditu:

- a) Ingurugiro-kontzientzia hedatzea.
- b) Unibertsitatekoak ez diren hezkuntza-arloetan ingurugiro-gaien irakaskuntza egokia.
- c) Unibertsitatean, ingurugiroaren ezagutzako sektoreetan, trebakuntza berezitua eskaintzea.
- d) Ingurugiro-ikerketa sustatzea, teknologian, osasun-zientzietan, esperimentaletan, gizarte zientzietan eta humanitateetan.
- e) Erosketa publikoetan, enpresa eskaintzaileen ingurugiro-kudeaketa sartzten duten balorazio-irizpideak ezartzea.

Komunikazioa.

Gizarteari Ingurugiroaren Egoeraren garapenari eta aurreikusitako ekintzei buruzko informazioa emateko bitartekoak biltzen ditu. Horrela, gizarteak parte har dezake.

Lanabes horietako batzuk hurrengo puntu hauetan biltzen dira: informaziora hurbiltzeko araudiak; erabakietan eta jarritako neurri edo programen jarraipenean parte hartuko duten taldeen antolakuntza; eragileen kooperazioa, baliabideak erabiltzeko eta jokaera-arauak garatzeko.

Ingurugiroaren Jarraipena eta Zaintza

Ezarritako politikak neurtzeko eta ebaluatzeko tresnak dira; baita erabili diren gainerako tresnen baliagarritasuna neurtzeko ere. Azpimarratzekoak

4. g a k o a

Sektore bakoitzean eta ingurugiro-arazo bakoitzean, ingurugiro-politikako lanabesek kostu/eraginkortasun maila desberdinak dituzte. Lanabes berritzaileak sartzeari bultzatu behar da: prebentzioaren, borondatezko akordioaren, trebakuntza arduratsuaren, ingurunearentzako errespetuaren aldeko diskriminazio positiboaren eta informazioaren laguntza oinarri duten lanabesak.

dira: neurgailuen katea, detektatzeko eta alarmako atalaseak, emisoreen arteko hartu-emanen neurriak eta simulazio-ereduak.

Ikuskaketarako lanabesak sail honetara ekarri beharko lirateke, beren filosofia aldatuta eta ondorengo hauek bermatzeko:

- Berariazko portaerak
- Informazio arduraturako mekanismoak
- Borondatezko akordioak.

2.2 Ingurugiro-estrategia berria

Ingurugiroa kontzeptu abstraktu eta generiko izatetik funtzionalitatea eta balioa duen identifikazio zehatzeko kontzeptua izatera iragaten ari da.

Ingurugiro garbiak zeregin bat baino gehiago ditu guretzat eta funtzio horiek era jasangarrian erabiltzen jarraitzeko ahaleginean gabilta. Edaten dugun ura, arnasten dugun airea eta jaten ditugun elikagaiak berak emanak dira.

Garapen jasangarriak ingurugiro garbi, poluzio gabe eta enbarazurik gabea eskatzen du, baina horrez gain, guk denok, bai orain eta bai gero, baliabide naturalak eta kalitatezkoak izatea ere eskatzen du. Gaur egun ingurugiroaren kalitatea bera ez da helburua, EAEko lurraldea, bizitzeko, lan egiteko eta aisiaz gozatzeko egokia eta erakargarria izatea bermatuko duen derrigorrezko bitartekoa baizik.

2.2.1. Pertzepzio-eremuak

Eragileen ekintzen koordinazioa egiten duen ingurugiro-politika geografiko espazio jakin batera mugatzen da. Eragileen presioen guneak ez datoz, ordea, beti bat neurtutako inpaktuen guneekin. Horrek eragileek kontuan izan behar dituztela eta esparru desberdinen arteko harreman geografikora egokitu egin behar dutela esan nahi du.

Horregatik, muga administratibo eta fisikoetatik haratago doazen ingurugiro-arazoak (klimatek, etab.) ezin dira Lurralde Unitatetik tratatu, tratamendu globala behar dute eta. Maila lokalean ez da askorik egingo: ezarria dagoen politika globalaren adar gisa, ekintza jakin batzuk, emisio-foku izan

ingurugiroaren zereginak

baliabideak guztientzat

espazio geografikoen atzean

globala



5. g a k o a

Ingurugiro-politika ezartzekoa den Lurralde Unitatean, beharrezkoa da, Egoera eta Garapenaren Adierazleak aztertuko dituen jarraipen-sarea erai-
kitzea. Sare hori eremu zabalagoan, maila globalean edo eskualdekoan,
integratuko da, baina ezarriko zaizkion alarma- eta perdoi-atalaseak, maila
lokalerako egokien direnak izango dira.

litezkeenen gainean, edo Ingurugiroaren Egoeraren jarraipen puntuala, globalki egin diren aurrerapausoen neurketaren barnean.

Beste zenbait arazo eskualde-mailan hautematen dira. Arazoen sorburuan antzeko jokaerako eragileak daude, eta konponbideak Lurralde Unitate batetik bestera estrapola litezkeenak dira. Halakoak dira azidifikazioa, eutrofizazioa, hondakin-kudeaketa edo poluzio kimikoaren arazoa. Eskualde-eremu horietan ekonomikoki bateratu beharrak onartezin egiten du erabakigune lokaletan hartutako soluziobideetan eraginkortasun falta edo lehiakortasun eza duten elementuak sartzea. Politika sendo eta jasangarriaren zutabeak kooperazioa eta arazo komuntetzako irtenbide komunak proposatuko dituzten eragile-sareak eraikitzea izan daitezke. Eskualdeko esperientziak maila lokalean ezarri eta jarraituz gero, eskualdeko arazoentzako irtenbideak ezagutu daitezke eta bere eraginkortasuna neurtu. Bildutako ezagutza bata besteari pasatzea funtsezkoa da.

eskualdea

Eguneroko bizitzatik hurbilen aurkitutako arazoen lekuan bertan izaten dute jatorria eta maila lokalean ekin dakieke. Maila honetako ingurugiro-politikaren oinarria, jokaera-arauak eta legeria zehatzak ezartzean datza; maila lokalekoak eta deszentralizatuak, betiere, eta egoeraren edo testuinguruaren arabera, malguak izan daitezkeenak. Zaintza eta informazio-kateak osatuz gero, emaitzen eta esperientzi trukea posible izaten da epe ertainera.

lokala

2.2.2. Epeak

Eragile emisoreen ondorioak, gehienetan Ingurugiro Sistemaren gaineko epe laburreko inpaktutzat jotzen dira. Badira, hala ere, epe ertain edo luzera detektatzen diren inpaktuak, eragileen presioen jatorria lausoa izateagatik edota Sistemak berak jasan dezakeen dispersioa izateagatik.

presioak vs inpaktuak

Bestetik, emisioak deuseztatzeko asmoa ez ezik, Ingurugiro Sistemaren Egoera hobetzeko, zuzentzeko nahiz berritzeko ere baduten erantzunen ondorioak (hautemate-atalasea), normalean epe luze samarrera jasoko dira.

erantzunak vs egoera

Ekintza batzuentzako eta besteentzako erantzun desberdinak izateak, aldaketa-erritmoaren inguruko etengabeko informazioa izatea (jarraipena) eta neurri osagarriak eta zuzentzaileak hartzea eskatzen du. Era berean, ondorio biderkatzaileak edo eraginkortasun handikoak dituzten ekintzei garrantzi handiagoa ematea eskatzen du; hartara, emandako erantzunen eta erabilitako lanabesen egokitasuna neur daiteke, fidagarritasunean ez ezik, ondorioen sendotasunean ere bai.




ekintzak sendotu

Banantzea

Banantzea ekonomi hazkunderatik bizi-kalitatea hobetzea da, ingurugiroaren gaineko presioa txikiagotu egiten den bitartean. Bi motako banaketak daude:

- Banantze absolutua: Ingurugiroaren gaineko presioa jaisten denean edo, gutxienez, lehengoan irauten duenean eta ekonomi jarduerak gora egiten duenean.
- Ingurugiroaren eraginkortasunak, kontsumo- eta produkzio-maila jakin batean, pixkanaka ingurugiroko eta naturako baliabide gutxiago erabiltzea esan nahi du.

Banantze erlatiboa: Ingurugiroaren gaineko presioa hazten denean, baina batekoz beste ekonomi jarduera baino gutxiago.



Horregatik, jardunbideak planifikatzean, epe luzera jarri behar dira helburuak, iristeko modukoak betiere, eta urratsez urrats joan behar da, pixkanaka eta mailaka. Epe luzeko plangintza honek helburu partzialetan egiten diren aurrerapausoen jarraipena egitea ere eskatzen du.

behar adinako denboraldia

12 urteko epea jarrita, nahikoa dirudi Ingurugiro Sistemaren eboluzioa ikusteko. Urte horietan zehar, ekonomi jardueraren zikloetatik hurbilen dauden ebaluazio minimoek -lauzpabost urte- ekonomiaren eta ingurugiroaren integrazioa gertatzen ari den ala ez erakutsiko dute, eta neurri sustatzaile egoiak hartzen lagunduko.

2.2.3. Ekonomia eta Ingurugiroaren arteko harreman berriak

Agintari publikoek biztanle guztien ongizatea eta bizi-maila hobetzeko ardura dute, bai orain eta bai gero. Garapen jasangarriaren bilaketan (ingurugiro-politikaren helburu nagusia), argi geratzen da ingurugiroagatiko kezka ongizatean eta bizi-mailan oinarritutako kezka zabalagoaren barnean dagoela. "Garapen jasangarria" terminoa NBEko Brundtland Batzordeak sortu zuen, gaur egungo beharrak asetzeko garapen-mota bat, hurrengo belaunaldiek beren beharrak betetzeko gaitasuna izan dezaten trabarik ipiniko ez duena, deskribatzeko.

Hazkundera eta ingurunearen gaineko presioa

Etengabeko hazkunde hutsa helburu duen ekonomi politika ezartzeak ingurunea gehiago kaltetzea esan nahi du; hala erakutsi du iraganak.

Oraintsu arte, ekonomi hazkundera eta ingurugiroaren gaineko presioa bata besteari josita zeudela uste izan da, hau da, zuzenean lotuta zeudela ondatsunen produkzioa eta poluitzaileen emisio fisikoa (zuzeneko harremana dagoela hazkunderaren eta ingurugiroaren gaineko presioaren artean).

zuzeneko harremana

Dena den, ingurunearen narriadura hainbestekoa izan delako, giza osasunarentzako arriskutsua izatera ere heldu da. Horregatik, zuzentze- eta berri-tze-politikak antolatu behar izan dira.

Ekonomian eta ingurugiroan aldi berean lan egiteko joera honek bi hazkunderen arteko banantzea gertatzea du helburu. Beraz, zenbat eta banantze handiagoa, hainbat eta nabariagoa izango da ingurugiro-politikaren egokitasuna; areago, arrakasta biribiltzat joko litzateke ekonomi hazkundera ingurugiroaren narriaduraren gorakadatik guztiz bereiztea.

banantzea



Horregatik da ingurugiro-politikaren helburua ekonomi hazkunderari atek irekitzea, ingurugiroaren kalitateari eutsiz.

Ekonomiaren zikloa eta ingurugiroaren zikloa

Ekonomia-ingurugiroa banantzearen norabidea erabakitzen duten alderdie-tako bat ekonomi zikloaren iraupenaren eta ingurugiro zikloaren arteko aldea da: 4-5 urte eta 10-20 urte, hurrenez hurren. Hots, ekonomi hazkunderaren planteamenduan oinarritutako ekintza askok berehalako inpaktua dute ingurugiroaren gainean, baina ondorio horiek leuntzearen hartutako zuzentzeko edo berritzeko neurriek baliteke helburua urte asko igaro arte ezin osorik bete izatea.

zenbait ziklo

Ingurugiroaren kostuak barneratzea

Ingurugiroa botere publikoak babes dezake, babeserako lege edo arauak ezarriz eta zigor edo hertsadura-neurriak hartuz ("polutzen duenak ordaindu egingo du"). Politika honek narriadura geldiarazteko eta zenbait eragile sentsibilizatzeko balio du, baina, epe ertainera, enpresen eta eskualdeen hazkunde desorekatua eragiten du, eta zenbait eragile industrialek zerga estaliaren modura sentitzen duten horren aurrean jarrera gogorra hartzea. Azkenean, gizarteari bihurtzen zaio arazoa; izan ere, produktoreak, ahal duenak, ingurugiroa zaintzeko kostuak estali ahal izateko, prezioak igo egingo baititu.

Ingurugiro politika kanpotik ezartzeak garapenari ezarri dizkion trabak barneratzearen bidetik saihestu daitezke: produkzio-prozesuak har dezala ingurugiroaren babesa bere kostuetan eta lan egin dezala, beraz, aurrekontu errealean gainean. Geroago kostu horiek egoki daitezke merkatuaren egoerara, teknologi berrikuntzak sartuz (elementuak ordezkatu, eraginkortasuna igo, aurrezkiak) eta prozesuak eta jarduerak etengabe hobetuz.

Epe ertainera, ingurugiroaren kostuak prezioetan integratzea, erabaki ekonomikoak hartzen direnerako, kostu errealak hor sartzeko ahalegin-modua da. Politika honetatik etorritako etekinek garai bateko mesfidantzak uxatu dituzte eta elementu eredarri gisara jokatu dute.

2.2.4. Ezagutzaren eta ingurugiro-jarduketaren arteko erlazioak

Etorkizuneko ekonomi hazkundera kontsumo handiago eta anitzagoari erantzun dio. Kontsumitzaileen eskaeran gerta daitezkeen aldaketek pro-

Cambio climático: Reducción absoluta de emisiones	
Gases con efecto invernadero	-5% Mtn
CO ²	=Mtn
CO ² por tráfico	+8% Mtn
Acidificación: Reducción absoluta de emisiones	
NOx	-250% kTn
NH ³	-280% kTn
SO ²	-210% kTn
CVO	-280% kTn
Lluvia ácida: Consecución de un valor tope	
Máx. total de ácido potencial	1400 mol/Ha
Eutrofización: Reducción	
P total	-400% kTn
N total	-250% kTn
Deterioro Medioambiental Urbano: Conseguir	
Población soportando <55dB	35-40%
Proyección de gasto:	
Costes de adaptación ambiental (2000-2010)	1.000 Eur/hab/año

Algunos objetivos proyectados al 2010 en el escenario de Coordinación Europea para los distintos países de la Unión Europea

	1985 maila	1990eko maila	1995eko maila	Helburua lortuko den urterako aurreikusitako maila	Helburua	¿Aurrerapenak?
Berotegi-efektuko gasak (BEG) eta Klima-aldaketa						
BEG guztien emisioak	-	100	98	106	92 2008-2012	☹️
CO ₂ -ren emisioak	96	100	97	98-102	100 2000	😐
Ozonoa agortzen duten substantziak						
CFCen produkzioa	160	100	11	0	0 1995	😊
HCFCen produkzioa	-	100	108	0	0 2025	😊
Azidotzea						
SO ₂ -ren emisioak	119	100	65	53*	60 2000	😊
				29	16 2010**	☹️
NO _x -ren emisioak	95	100	89	81*	70 2000	☹️
				55	45 2010	☹️
Metanorik gabeko konposatu organiko lurrunkorren emisioak (MGKOL)	98	100	89	81*	70 1999	☹️
Eskualde-mailako arazoak						
Udal-hondakinak (per capita)	79	100	103	109	79 1999	☹️

* 1995 eta aurreikusitako mailaren arteko interpolazioa ** ozonoaren eta azidotzearen kontrako estrategia konbinatuaren arabera alda daitezkeen proposatutako helburuak

EBko garapen ekonomikoa eta presioen joerak (1985-2010) ingurugiro-helburuekiko (Index 1990=100)

dukzio-jardueraren kate osoa alda dezakete, eta horrekin eragileek ingurugiroan egindako presioari zuzenean eragin dakiok.

kontsumo-aldaketak

Hazten ari den "pull" ekonomi fluxuak (eskaerak tira egiten dio eskaintzari) eskaera aldakorra eta pertsonalizatua eragiten du. Eskaera horretan, ingurugiroa errespetatzearen kontzeptua sar daiteke eta produktoreenganaino iritsi; hauek ingurugiroarekiko errespetu handia duen eskaerara egokitu behar dute. Kontsumitzaileak ohizko poluzio-eragileen gain duen indarrak bien arteko ardura-harremana dakar.

ardura bateratua

Egoera elkarreragile honek hainbat zutabe nagusi ditu:

- Gizarteak duen eta erabiltzen duen informazio- eta heziketa-maila.
- Eragile eta gizartearen ordezkari diren erakundeekiko hitzarmenak, ingurugiro-politika onargarriagoa planteatzen lagun dezaketenak.
- Eragile kontsumitzaileen iritziak bereganatzeko eta baloreak hartzeko gaitasuna.
- Kontsumo jasangarriaren eta bere ondorio/onuren inguruko kontzientziaztea.
- Gizartearen balore-eskala edo garrantzitsutzat jotzen duena.

Ekonomi esparruan eratzen ari den komunikazioaren gizarteak uzten du, zentzu honetan, informazioan eta parte-hartzean oinarritutako ingurugiro-estrategia eramaten. Arhaus-ko Konbentzioaren emaitzek (1998an Europako 35 lurraldek izenpetua), besteak beste, erabakietan parte hartzeko eskubidea aldarrikatzen du eta erabakitzaile publikoek emaitzen eta hartutako erabakien berri (arrazoi eta guzti) emateko obligazioa dutela zehazten du.

informazioa eta parte-hartzea


2.2.5. Herrialdeen erantzunak

Mugez haraindiko ondorioak dakartzaten ingurugiro-presio eta efektuen gaia, Eztabaida Foroetan, Konbentzioetan eta Aldarrikapenak sinatzearen bidez aztertu da eta alde guztietatik antzeko irtenbideak proposatu dira. Hortik datoz, emisioak murrizteko programak, energia aurrezteak, oso substantzia toxikoak debekatzea, etab. Horren guztiaren inguruan, gai honetan politika aktiboak ezartzeko Koordinazio Foroak daude. Hala ere, esparru lokalean, zaintzara eta kontrolera, eta eragile poluitzaile lokalei politika globalak ezartzera bakarrik irits liteke. Administrazio lokalek politika global hauek gorpuzteko duten aukera bakarra sentsibilizazioa eta ordezkapen-pizgarriak ezartzea da (teknologia garbiak).

sentikortzea eta pizgarriak

* CO₂ helburua: CMNUAC & 5PAMA.
 ** MGKOL helburua: 5PAMA, NUCTLD Protokoloa
 *** SO₂ helburua: 5PAMA, NUCTLD Protokoloa

Iturria: Hainbat iturritatik bildutako datuak



EBeko garapen ekonomikoa eta presioen joerak (1990-2010) Ingurugiro-helburuekiko

Hala eta guztiz ere, maila lokaleko edo eremu mugatuagoko ingurugiroaren beste efektu batzuen kasuan, ezar daitezke neurri eraginkorragoak, zorrotzagoak, azkarragoak eta epe motzera ebaluatzeko modukoak.

Europako Batasunean, edo ekonomi integraziorantz doan makroeskualdean, urte batzuk badira politika sektorialak eta politika tinkoak ezartzen ari direla. 2000. urtean estrapolatutako txostenek azaltzen dutenez, asko hobetu da, baina ez nahikoa. Oro har, gelditu egin da lehengo narriadura hura, baina ingurugiroa hobetzea eta berritzea denbora igaro ahala atzeratzen ari dira. Gainera, eremu batzuetan beste batzuetan baino gehiago aurreratu da.

Gairik kezkarrienak, oraindik ere, ohikoak dira: Klima-aldaketa, atmosferaren eta lurpeko uren Azidotzea, Bioaniztasuna, Hondakin Arriskutsu edo Toxikoak Biltegitratzea, Garraiatzea eta Desegitea (berariazko legeriaz eta ongi osatuaz) eta baliabide naturalen kontsumoa jaitea (energia eta ura, batik bat). Aparteko atala dira Afrikako eta Europako Ekialdeko herriein egindako hainbat hitzarmen, herri haietako bioaniztasunaren eta baliabide naturalen zaintzari elkarrekin ekiteko.

Europako Batasunean aurrerapausoak eman dira hurrengo urteetarako ingurugiro-politika berri, koherente eta sendoa antolatzerakoan. Ingurugiro-arazo gehientzako epea 2010-2012 urte bitartean jarri da, eta arazo global eta erantzun geldokoentzat 2025ean, edo zenbaitentzat 2050ean. Dena den, hurbileneko helmuga kuantitatiboek 2010. urtea dute erreferentzia beren kontrola egiteko.

EEAk emandako European Assessment Report-ean adierazten denez, kontinente osoko 56 arazo komunak (identifikatuak eta deskribatuak) txikiago-tzeko lehentasunezko helburu batzuk jartzen dira, hauek ere komunak, politika zehatz jakinetatik gora doazenak:

- Ingurugiro-kudeaketarako sistema zabalagoa lortzea.
- Ingurugiro-arazoetarako helburu batzuk prestatzea, ekonomi eta ingurugiro-zikloek gutxienez banantze erlatibo etengabekoa sor dezaten.
- Bosturteko batean, Europako oinarritzko sektoreetarako bateratze-indizeak ez igotzea lortzea.
- Ingurugiro-legeria soiltzea, harmonizatzea y bateratzea.

ingurugiro-berreskurapenerako atzerapenak

politika berria



6. g a k o a

EAEn ekonomiaren eta ingurugiroaren arteko harreman-mota berriak ari dira azaltzen; halaber, ezagutzaren eta ingurugiro-jardueren artekoak. Helburua: politika publikoen bitartez eta lanabes berriak eta hobeak erabiliz, eraginkortasun handiagoa lortzea.

- Ingurugiro-politikarako lanabes berriak sartzea.
- Gizarte-informazio hobeko pausua ematea.
- Ingurugiro-arazo berrietan baliabideen kontsumoa mugatzea (ingurugiro hiritarraren narriadura bereziki).
- Ekonomi bateratzea eta teknologia zentzuz erabiltzea areagotzea.

Horrekin batera, Maila Paneuroparrean Jarduteko Programak indartzen ari dira -2000 Agenda, Aarhus 98, VI. Ingurugiro-programa, IPPC Arteztaraua, etab.- eta Europako Ingurugiro Agentzia eta honek Batasuneko eskualde eta lurraldeetan dituen sukurtsalen funtzionamendua indartzeko ahaleginean ari dira.

***Esparru Programak eta
Arteztarauak***

7. g a k o a

Jarduera koordinatua eta egiaztagarria lortzeko eta zatiketa saihesteko, beharrezkoa da, beste lurralde batzuetan egin duten moduan, aro berrira sartzea. Aro horretan, Ingurugiro Sistemaren gaineko inpaktuak zuzendu beharrez, ekonomia eta ingurugiroaren arteko integrazioa joko litzateke, ekonomi hazkundera eta ingurugiroaren gaineko presioa bereiztera.

3. ONDORIOAK:

EAEko Ingurugiroaren-politika berriaren beharra eta horretarako aukerak

EAEko Ingurugiro Sistemaren egoera Europako Batasunekoarekin -eskualde-mailakoa eta aurreratua den baten erreferentzia da- alderatuz gero, arazoei aurre egiteko hartutako bideetan alde txiki batzuk badirela ondorioztatzen da. Alde txiki horiek, denboran zehar handiagotu egin daitezke, ordea, ingurugiroarentzako kaltea dakarten joerak eta jardunbideak aldatzen ez badira.

Europako Batasunean ingurugiro-politikari beste kontzeptu batzuk eranstean ari zaizkie: politika koherentea da eta eraginkortasuna neurtzeko irizpideetan oinarritua. EAEn, orain arte, era sektorialean lan egin da, koordinazio falta apur batekin eta oso aurreratua zegoen narriadura zuzentzeko helburuari lotuta.

Ingurugiro-politikari buruzko ikuspegi berriak ekonomi eta finantza-baliabideen eraginkortasunaren bila dabilta, politika zehatzen barne-integrazioaren eta kanpo-integrazioaren bidetik; hots, Lurralde Unitateetan eta eskualde-mailan elkar osatuz. Gainera, autonomiari eta maila lokaleko jardueraren zehaztasunari eutsi nahi diote. Halaber, ondorio biderkatzaileak dituzten ekintza horizontalen bila dabilta, lehentasuna duten sektore eta arazok azpimarratuz. Horregatik, gomendatzen da, ekintza hauen gaineko ardurak zuzen banatuko dituzten lan-tresnak, poliki baina etengabe, ezartzea.

Europako gizarteekiko lotura izan behar dute ekintza hauek oinarrian, eta horrekin batera, irtenbide komuna duten arazo komunei erantzuteko nazioarteko elkarlana.

Ingurugiro-politika berri propioaren helburu bikoitz hark (ekintza koordinatua eta egiaztagarria; banantzea lortu) eragile guztiak estrategikoki antolatzea eskatzen du. Alde horretatik, ingurugiro-politika berria ezartzea komeni ote den aztertzeke erreminta den AMIA eszenatokiak baieztatu egiten du behar hau.

Bateko, badira ingurugiro politika propioa zein norabidetan eta nola ezarri behar den argitzeko aukerak:

- Europa-mailako ingurugiro-politika bada.
- Eskualdeez harandiko ildoek maila lokaleko egoerara egokitu behar dute.
- Ingurugiro-kalitatearen eskaera handia da eta hazten ari da.
- Ingurugiro-politikan ikuspegi berriak sartuko balira, egungo poli-

barne- eta kanpo-integrazioa

nazioarteko elkarlana

DAFO analisia

EAEko Ingurugiro Politikaren Analisi estrategikoa (AMAIA)

AUKERAK

Ingurugiro-politika propioa non eta nola ezarri behar den argitzen dute:
Bada ingurugiro-politika europarra.
Eremu orokorreko ildoak egoera zehatzetara egokitu behar dira.
Ingurugiro-kalitatearen eskaera handia eta gero eta garrantzitsuagoa dago.
Eguno politikan bigarren mailako eraginak izaten dira epe luzera. Ikuspegi berriak behar dira.
Ekonomiaren egonkortasunak ingurugiroa kalitate-faktore modura integratzea ahalbidetzen du.
Ingurugiro-politikatarako fondo komunitario zehatzak badira.

MEHATXUAK

Eguno ingurugiro-alorreko lan-jardunarekin jarraitzeagatik sortuak:
Epe motzeko ekitaldiek ez dituzte ondorioak epe ertain edo luzera zuzentzen.
Baliabideak alferrik xahutzen dira era partzialean antolatutako ekintza eta planen koordinazio ezagatik.
Ez dira kontuan hartzen poluzio zehaztugabeko fokur berriak (zarata, hiri-presioa, etab.).
Jarduera lokala ez da eskualdeez gaindikotik bereizita azaltzen.
Ezarrita egindakoa gehiago da arduraz egindakoa baino.
Kontsumoan oinarritutako gizarte-presio ekonomiko desarrollista dago.

INDARRAK

Eguno ingurugiro-politikak honakoak ekarri ditu:
Ingurugiroa hobetzeko ohiturak onartuta.
Eragile jakin batzuegan, zuzentzea finkatu egin da.
Administrazioak badu maila lokalean lan egiteko eskuduntza.
Irtenbide bideragarriak bilatzeko teknologi eta berrikuntza-gaitasuna badago.
Ekintza publiko eta pribatuen arteko batasun beharra onartzen da.
Administrazioko beste Sail batzuetan integratutako zenbait programaren esperientzia hor dago.

AHULEZIA

Ingurugiro-arazoak EAera heldu izanari dagozkionak:
Eragileen arteko koordinazio falta aurkitu da.
Administrazioaren antolamendua konplexua da.
Europako arauak ia ez dira garatu maila lokalean.
Ekintza zuzentzaileen jarraipenik ez da egiten eredu kausalaren arabera.
Eragile emisoreen eta eskatzaileen taldeak zatiiturik daude.
Informazioa, parte-hartzea eta gizartera hedatzen dena ez dira nahikoak.

tikak konpontzen ez dituen bigarren mailako inpaktuak zuzendu egingo lirateke.

- Onartuta dago ekonomiaren egonkortasunak ingurugiroa lehiakortasun-faktore modura integratzea ahalbidetzen duela.
- Badira ingurugiro-politikatarako ezarritako fondo komunitario zehatz batzuk.

Bestetik, ingurugiroan egungo jarduteko eran irauteak dakartzan mehatxuei buruz gero eta adostasun handiagoa dago:

- Epe motzeko ekitaldiek ez dituzte ondorioak epe ertain edo luzera zuzentzen. Garaian garaiko ekintzak antolatzea eskatzen du horrek.
- Baliabideen xahutzea, era partzialean antolatutako ekintza eta planen koordinazio ezagatik.
- Ez dira kontuan hartzen poluzio zehaztugabeko foku berriak (zarta, hiriko presioa, etab.).
- Maila lokaleko lana eta eskualdez haraindikoa ez dira bereizita agertzen.
- Ezarritako lana gehiago agertzen da arduraz egindakoa baino.
- Kontsumoan oinarritutako gizarte-presio ekonomiko desarrollista eta indibiduala da nagusi.

Horregatik, Ingurugiro Sistema globalak izan dezakeen eboluzioa zein den ikusita, Lurralde Unitate txiki bateko indarrekin joka liteke, neurri sendoagoak, egonkorak, iraunkorak eta gizarteko zati desberdinek onartutakoak ezarritak:

- Ingurugiroa hobetzeko ohiturak onartuta daude.
- Eragile jakin batzuegan, zuzentzea finkatuta dago.
- Administrazio betearazleak eta botere legegileak badute maila lokalean lan egiteko nahikoa eskuduntza.
- Irtenbide bideragarriak bilatzeko teknologi eta berrikuntza-gaitasuna badago.
- Ekintza publiko eta pribatuen arteko batasun beharra onartzen da.
- Administrazio beste Sail batzuetan integratutako zenbait Programaren esperientzia hor dago.

Aldi berean, ingurugiro-politikak EAeko gizarteari heldu zaion ingurugiro-arazoari lotuta dauden ahuleziei aurre egin beharko die.

- Eragileen eta ekintzen arteko koordinazio falta aurkitu da.
- Administrazioaren antolamendua konplexua da.

8. g a k o a

Horregatik guztiagatik, ingurugiro-politika berria finkatzeko beharra eta onura ondorioztatzen da. Politika koherentea eta sendoa, epe ertain eta luzerako ikuspegia duena, euskal gizarteak etorkizunean nahi lukeen ingurugiro-kalitatearen nolakotasunei buruzko hausnarketaren ondoren erabakia. Halaber, kontuan izan beharko da Lurralde Unitate txiki, anitz eta ekonomi baliabide urrikoan, kalitate horren zein osagai izango liratekeen posible.

- Europako arauak ia ez dira garatu maila lokalean.
- Ekintza zuzentzaileen jarraipenik ez da egiten eredu kausalaren arabera.
- Eragile emisoreen eta eskatzaileen taldea zatiturik dago.
- Informazioa, parte-hartzea eta gizartera hedatzea ez dira nahikoa.

Politika berri hau aurrera eramateko Ingurugiroko Esparru Programatik abiatu behar da. Programak erronkarik handienei begiratu behar die eta bultzada non eman behar den erakutsi; horrekin batera, aurretik garatutako ingurugiro-politiketarik jasotako emaitzak, esperientziak eta hartutako indarra kontuan izanik, detektatu diren mugak nola gainditu beharko liratekeen esango du.

Ingurugiroko Esparru Programaren tinkotasuna ingurugiroaren egokitze-zikloan zehar neurtuko da; horregatik, 2012 urtean ipini da Esparru Programatik eratorritako ekintzak burutzeko epea.

zuzentzetik kudeatzera

9. g a k o a

EAEn epe motz eta ertainera a) martxan jarri beharreko estrategien eta jardueren b) definizioa eta azterketa sistematikoa c) da. Ekonomi eta gizarte-eragileek d) jarriko dituzte asmoak martxan, betiere, ingurugiroko baliabidei ahalik eta etekin handiena ateratzen lagunduko duten oinarriak ezartzeko helburuarekin, eta epe ertain eta luzera garapen jasagarria e) eta biztanleentzako bizi-maila egokia bermatzekotan; horiekin guztiekin batera, estrategia eta ekintza hauen antolamenduari eta norabideari f) erantzungo dioten oinarriak ezartzeko asmotan.

4. Ingurugiroko Esparru-Programa Egiteko prozesua

4.1. Ingurugiroko Esparru Programaren ezaugarriak

Ingurugiro-politika sendoaren definizioa funtsezko ideia honetatik dator: plangintza estrategiko egokia egiteko, sorreratik parte hartu behar dute plan hori beteko duten eragileek, hasieratik, proiektuaren metodologi planteamenduetatik bertatik plana gorpuzten laguntzea gogoan dutela.

Filosofia

Honako hauek, ingurugiroaren funtzionamendu globalaren ereduak berak balore nagusi egiten dituenak dira:

- ekonomiaren eta ingurugiroaren integrazioa
- bizi-kalitatea
- kapital ekologikoa optimizatzea
- belaunaldien arteko eta nazioarteko solidaritatea ekintza lokaletan

Definizioa

Horregatik, EAEko 2000-2012 eperako Ingurugiroko Esparru Programa honela ulertzen da:

a) Epe motz eta ertainera

Proposatutako estrategia eta jardueraren definizioa Programaren hasieran hasi eta 2012. urtea artekoa da. Behar bada proposatuko diren proiektuen hedadura kontuan hartuta, bere heltze- eta gorpuzte-prozesua epe ertainean jar daiteke, eta zenbait kasutan, epe luzera. Horrek, azken emaitzetarantzko aurrerapausoen neurgailuak jartzea eta proiektu bakoitzaren mugarren jarraipena egitea eskatuko du.

b) Estrategiak eta ekintzak

Programa, azkenean, ongi justifikatutako eta aztertutako jarduera-multzo zehatza izango da. Ekintzak, ingurugiroan duten inpaktuagatik, gaika sailkatutako adierazleek zehaztuko dituzten estrategien esparruaren barnean egongo dira. Estrategia bakoitzerako ahaleginik handiena, proiektu horretarako izendatuta dagoen denbora-epearen barruan bete litezkeen ekintzak zehaztu eta zedarrizten egin behar da.



c) Definizioa eta azterketa sistematikoa

Hausnarketa ordenatua, zorrotza eta arduratsua da, abiapuntuan zegoen egoerari buruzko ikuspegi global eta koordinatua hartuko duena eta ekonomi eta ingurugiro-arazoak erabat lotutako gauza bakar gisa integratuko dituen, kausak eta azalpenak agertuko dituen eredutik abiatuta. Azken helburuak, aurkitutako gabezien, garatutako programen eta dauden alternatiba eta gaitasunen azterketa zorrotz eginda pentsatuko dira.

d) Ekonomi eta gizarte-eragileak

Proiektuaren helburuetako bat EAEn diharduten Administrazio Publiko guztiek bete-betean parte hartzea da; baita estrategien eta ekintzen diseinuan eta gorpuztean nolabaiteko parte-hartzea duten ekonomi eta gizarte-eragileek ere. Horrez gain, planean aztertutako gaien berri eman nahi zaio gizarteari, bai talde jakinetan, bai gizarte osoan, ezagutza eta eztabaida bultzatzearen.

e) Garapen jasangarria

Gizartearen jokaera aldatzea eta garapen jasangarrirantz bideratzea da azken jomuga. Garapen horretarako, besteak beste, onartu beharra dago, giza jardueraren jarraipenak eta ekonomi hazkundeak behar-beharrezkoak dituela natura eta bere baliabideen kalitatea eta babes egoki zaintzea. Halaber, onartu beharra dago ezin dela kontsumoa edo baliabideen erabilera inoren bizkar egin, ezta beste belaunaldi baten bizkar ere.

f) Antolatu eta egituratu

Ekimenak biltzeko ahaleginean, eragileak bateratzea beharrezkoa da, hainbat lurralde-eremutarako jarduera-planak oinarri sendoan eraikitzeko. Eragileen jokaera kontrolatzeko eta egokiago bilakatzeko lan-tresna gehiago eta hobeak emanda, ingurugiro-politika beste gainerako politika guztietan osotara integratzea da funtsezko estrategia.

Ezaugarri horiek denak kontuan hartuta, Ingurugiroko Esparru Programaren oinarritzko elementuak zein diren esan daiteke.

Irismena

Ingurugiroko Esparru Programak irismen zabala du oso; izan ere, ez da EAeko ingurugiro-politiken multzoa bakarrik, orain arte ulertu eta egin izan

10. g a k o a

Ildo honetan, Ingurugiroko Esparru Programa:

Gizartearentzat eta bere eskaerentzat da
ondasunen eta zerbitzuen eskaera eta eskaintza ere bere baitan biltzen ditu
joera makroekonomiko eta sozialak sartzen ditu
Administrazioako hainbat alorren arteko elkarlanetik sortu da
egungo beharrak eta sortzen ari direnak hartzen ditu kontuan
pertzepzio- eta ekintza-maila globalak hartzen ditu
epe luzera garatuko da: 2000 eta 2012. urte bitartean
malgua da erantzunetan eta, eboluzioaren arabera, berrikus daitekeena

den bezala, zeren ekonomia eta ingurugiroaren integrazioa sustatzeko behar diren guztietara ere iristen baita.

Ingurugiroko Esparru Programaren muina, Programan sustatuko diren lanabesak eta, jarraitutako estrategiak emango dion norabidea dira. Lanabesek eta programek ez dute batere josturarik gabeko ekintza-multzo soila osatzen; bere eraketan kontuan izango baitira, dituzten harremanak eta beren eraginkortasunaren adierazleak.

Helburuak

Programak oro har lortu nahi duen eragileetara helarazteko modua helburretan agertzen da. Helburuak, berriz, Programaren garapena gidatuko duten erreferentzia nagusi dira:

- EAEko ingurugiro-politikaren helburuak definitzea.
- EAEko ingurugiro-gaiak identifikatzea eta deskribatzea; halaber, kausa-ereduan parte hartzen duten Sistemako eragileak.
- Gizartetik abiatutako eta Sistemako eragileen arteko elkarlanean oinarritutako ingurugiro-politika sustatzea.
- Ingurugiro-gai bakoitzeko etorkizuneko ikuspuntuak eta eszenategiak antolatzea, eragileek arazoan nahiz irtenbidean duten parte-hartzearen arabera.
- Ingurugiro Politikan, leku eta sektore-eremu guztietan sustatu beharreko Lanabesak egituratzea.
- Ingurugiroan eraginen bat duten jardueretan sartutako berrikuntzen emaitzen ustipena bultzatzea.
- Ingurugiroan presio egiten duten jardueren eta administrazioaren erantzunen eraginkortasunaren jarraipen-eskema diseinatzea.

Lanabesak

Programaren beraren arrakasta ziurtatuko da, hautatzen, onartzen edo erabiltzen diren lanabesen arabera. Bereziki kontuan hartu beharko dira eraginkortasun/kostu harreman egokiena duten lanabesak eta gizarterakoak, garapen- eta kontsumo-eskaeran aldaketa egonkorra egiten utziko dutenak.

Horregatik, Ingurugiroko Esparru Programako oinarritzko elementu bat da, proposatutako jardunbide bakoitzerako eta parte hartzen duen eragile bakoitzarentzat komenigarrien diren ingurugiro-politikarako tresnak (arau-emaileak, antolatzaileak, finantzarioak eta sozialak) aztertu eta deskribatzea.

Ingurugiro Esparru Programaren antolamendu-egitura

Bermatzailearen Onarpena

Eusko Jaurlaritzako
Lurralde Antolamendu,
Etxebizitza eta Ingurugiroko
Kontseilua

Informazioa

Ingurugiro Batzordea

Batzordea Aholku-emailea

Erakunde arteko
Ingurugiro-taldea

Egitea

Ingurugiro-organoa

Batzorde Tekniko Koordinatzailea

Ingurugiroko
Esparru Programa

Hausnarketa Estrategikoa
+
Jarduketa Lerroak

Ezarpena
+
Garapena

Koordinazioa
+
Segimendua
+
Ebaluazioa


Lan Taldeak

Agenteak

Lan Taldeak

Berrikuspena

Hasiera / Berrikuspena



4.2 Antolamendu-egitura

Ingurugiroko Esparru Programa lantzeko eta ezartzeko proposatutako antolaketaren egitura, programak berak denboran zehar izan dezakeen garapenera egokituko zaio. Programa lantzeko fasean badira martxan dauden organo batzuk, beste batzuk ezartzeko fasean eta, azkenik, jarritako helburuak ongi betetzea bermatuko duten beste batzuk.

Ondoko eskema honek proposatutako egitura biltzen du laburbilduta eta hurrengo organo hauek ageri dira bertan:

Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila

Euskal gizarteko bizi-kalitatearen eta ingurugiroaren inguruan indarrean dagoen legeriak ematen dizkien zereginak bere egiten dituzte.


Ingurugiroko Esparru Programa onartuko dute eta honen emaitzak egokiak izan daitezen bermatuko dute.

EAEko Ingurugiro Organoa

EAEko Ingurugiro Organoa, Ingurugiroko Sailordetza da eta honek bere gain hartuko luke Ingurugiroko Esparru Programa lantzeko eta ondoren ebaluatzeko erantzukizuna.

Arlo horretan, bere eginkizunak hauek dira:

- Esparru Programaren lantze-, jarraipen- eta ebaluazio-prozesuaren gidari izatea.
- Programaren ezartzea bultzatu, eragileentzat antolatutako ekintzetan zuzenean parte hartuz.
- Programak daraman martxaren eta bere emaitzen inguruko hiritarrentzako komunikazio eta informazio-politika aurrera eramatea.
- Programan onartutako puntuen garapen arau-emailea bultzatzea.
- Eragileek egin beharreko ekintzak bultzatzea.
- Onartutako neurrien eraginkortasunaren berme-emaile izatea.
- Bere kontsulta-organoak behar adina trebatzea, hauei behar hainbestetan dei egitea eta elkarrekin gauzak adostea, horrela lan-programa zehatza ezartzeko.
- Esparru Programa indarrean dagoen bitartean, Ingurugiro Egoerari buruzko Memoriak eta Txostenak lantzea eta luzatzea, Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorrek ezarritakoaren arabera, betiere.



- Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailari Ingurugiroko Esparru Programa beronen inplementazioan berrikustea edo aldatzea proposatzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiro Batzordea

EAEn ingurugiro-gaiaren inguruan diharduten Administrazioen harremanaz, parte-hartzeaz eta koordinazioaz arduratzen den Organo aholku-emailea da.

Euskal erakundeen arteko koordinazioa sustatzeaz, Ingurugiroko Esparru Programari buruz txostenak egiteaz eta Ingurugiroko Esparru Programa garatzeko egiten diren plan eta programez txostenak egiteaz arduratuko da.

Ingurugiro Batzorde Aholku-emailea

Kontsulta-Organoa izango da, EAEn dauden ekonomi edo gizarte-esparruetako Eragile adierazgarrien parte-hartzean laguntzeko eginkizuna duena.

Esparru programaz bere eginkizunak hauek izango dira:


Ingurugiro-politika, plan eta programen inguruan aholkuak ematea. Ingurugiro-politikatik abiatuta, lanpostuak, garapen jasagarria, eragile publiko eta pribatuen arteko koordinazioa eta hiritarren parte-hartzea eta sensibilizazioa sustatuko lituzketen neurriak proposatzea eta azkenik, Europako Batasunarekin bateratuak leudekeen tresna berritzaileak sartzea.

Erakunde arteko Ingurugiro Taldea

Ingurugiro Batzordeari eta Batzorde Tekniko Koordinatzaileari, eskatzen zaizkion gaiei buruzko informazioa emateko eginkizuna du.

Bere betebeharrak hauek dira zehazki:

Kide bakoitzaren eskumen-esparruaren barruan, bere zeregina honako hau izango da: Ingurugiroko Esparru Programa prestatzeko Batzorde Tekniko Koordinatzaileari behar duen informazioa eskaintzea, eskatzen den guztian Ingurugiro Batzordeari aholku ematea eta Taldeko kide bakoitzaren eskumen-esparruan programa eta jardueren



emaitzak ebaluatzea, eta batzorde tekniko Koordinatzaileari ezartzen diren helburu eta adierazleen eboluzioari buruzko informazioa ematea.

Talde honek pertsona gutxiz osaturik egon behar du, lantzen diren gaietan kualifikazio tekniko eta erakundeetako oodezkaritza izango dutelarik.

Batzorde Tekniko Koordinatzailea

Esparru Programa lantzean, Ingurugiro Organoari, laguntza tekniko eta kudeaketarako emango dio.

Geroago, Ingurugiroko Esparru Programa onetsitakoan eta hau indarrean dagoen artean, Programaren jarraipena eta ebaluazioa egin beharko ditu; honako hauek zehazki:

- Organo errektoreak eskatutako jarduerak prestatu.
- Lan-taldeen funtzionamendua koordinatu eta dinamizatu.
- Informazioa, datu-bilketa, sentsibilitateak eta gizartearen eskarrietan izan litezkeen aldaketan detekzioa sendotu.
- Programen, jardueren eta Ingurugiroko Esparru Programaren emaitzak ebaluatu.
- Ingurugiro Organoari aurreikusita zeuden ekintzak zuzentzeko izan litezkeen ekintza zehatzak proposatu.
- EAerako kausa-ereduaren jarraipena egin.

Ingurugiroko Esparru Programa sustatzen duen erakundeko zenbait kidek eta, beharbada Administrazioetik at egongo den Idazkaritza Teknikoak osatuko dute.

Beraz, IHOBE Sozietate Publikoak har ditzake bere gain Batzorde Tekniko horren betekizunak -kualifikazioagatik, baliabideengatik eta esperientziagatik-, eta Idazkaritza Tekniko -Programa lantzen ari den garairako edo gero-rako, aholku-emaile gisara jarduteko bakarrik- lehiaketa publiko bidez esle daiteke.

Lan Taldeak

Hautaturiko gai-eremu bakoitza garatzeko estrategi proposamenak, neurri eta jarduerak aztertzeko, eztabaidatzeko eta aurrera eramateko ardura dute.



Arlo horietan gaitasun eta trebetasun profesional osoa aitortzen zaien eta ingurugiro-eragile guztietatik datozen pertsonak osatu behar dituzte.

Lan-talde bakoitzak Lehendakari bat eta Idazkari bat (Idazkaritza Teknikotik datorrena) izango du.

Hiru lan-talde mota proposatzen dira:

Gizarteko Lan-taldea

Publiko orokorra bilduko da hemen eta gizartearen beharrak, eskariak eta esperantzak antzemateko eginkizuna izango du.

Kide parte-hartzaileak hauek izan litezke: aditu kualifikatuak, ingurugiro-erakundeak, kontsumitzaile-elkarteak, hezitzaileak eta irakasleak, komunikabideak, alderdi politikoak, sindikatuak, etab.

Agenteen Lan-taldea

Ingurugiroaren gaineko presio-eragileak bilduko dira eta helburuen eta lana-besen inguruko akordioetara heltzea eta Ingurugiroko Esparru Programa betetzeko konpromisoak adostea izango dituzte betebeharrak nagusi.

Parte-hartzaileak Administrazioak edo, Esparru Programaren barnean leudekeen eragileen Enpresaburu edo Profesional Talde edo Elkarreetakoak ere izan litezke:

Puntu honetan, hainbat gai jakinetarako laguntza-taldeak ere sor daitezke: esaterako, "eskueran dauden teknika onenak" (BAT) zehazteko. Administrazio eta enpresa-munduko kideek osatuko lituzkete taldeak.

Diziplina arteko Lan-talde Teknikoa

Diziplina arteko gaiekin zerikusia duten Administrazio teknikariak eta zientzia-, teknologia- eta profesional-esparruko kideak bilduko ditu. Bere lana, gizartearen beharrak ingurugiro-arazoetan islatzea eta ebaluaziorako eta kontrolerako adierazleak ezartzea da.

Prozesu Metodologikoa

0 FASEA
Prestaketa eta Antolamendua

Onarpena HASIERA

Organoak eratzea

Mugarriak zehaztea
Lanerako Bitartekoak

Informazio
Publiko
Partehartzea

1 FASEA
Aldeaz aurretiko diagnostikoa

EAEko
Ingurugiro Egoera

Beharrak / gizarte-eskaera

Ingurugiro-gaiekiko
sentikortasuna

Galdeketa Publikoa

Ingurugiro Egoera

Ingurugiroko
hausnarketa politikoak

Estrategia globalak
Defiziten identifikazioa

Eskatutako
ingurugiro-kalitatearen
balorazioa

II. FASEA

4.3. Ingurugiroko Esparru Programa egiteko metodologia

Ingurugiroko Esparru Programaren metodologia parte hartzekoa izango da eta atzera berriz erabil daitekeena, eguneratu edo berrikusi beharrik sortuko balitz. Fasetan egituratutako prozesua du oinarrian eta epekako segidan garatuko da.

Epe bakoitzean, edukiak eta metodologi jarduerak zedarritzen dira; hau da, ZERI erantzun behar zaion eta erantzun hori landu behar duena NOR den.

Esan beharra dago, hemen agertzen den prozesua bideratzeko, parte-hartzaileek oinarritzko printzipio hauek bereganatu behar dituztela:

- Ikuspegian bat etorri: Hausnarketa estrategikorako metodo honetan, erreferentzi elementu argia da parte-hartzaileen adostasuna.
- Gogoetan indar berezia: Metodo honek parte-hartzaileek gogoeta egitea sustatu nahi du. Gogoetarako funtsezko elementuak hauek dira: ingurunea-rekin dagoen harremana detektatzea, ingurugiro-gai bakoitzaren barne-ara-zoak ezagutzea, egon daitezkeen lehiairtenbideak (beste programa eta politikei buruzkoak) detektatzea eta oraingo jarrerarekin zein etorkizunean lortu beharreko helburuekin koherente diren estrategiak definitzea.

Garrantzitsua da, era berean, prozesu honi heltzeko tresna zehazturik ez dagoela aipatzea. Estrategiaren hausnarketa-garaian gidari eta oroigarri izango den ñgaien norabide sistematikoa besterik ez da zehaztuko. Horregatik, metodologia-epeetan lortu nahi diren helburuak, azterketaren edukiak eta zuzeneko parte-hartzaileak aurkeztuko dira.

O FASEA: PRESTAKETA ETA ANTOLAKETA

Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak Ingurugiro Dokumentu Estrategikoa onartutakoan, eta Ingurugiro Batzordean aurkeztutakoan, hasierako fase honetan, antolakuntza-eskema ezarri beharko da, eta Esparru Programa lantzeko nahikoa informazio eta bitarteko izango direla bermatu.

Honako eginkizun hauek izango dira:

- Organoetako kideak finkatzea (Batzorde Tekniko Koordinatzailea, Erakunde arteko Ingurugiro Taldea, Gizarte Taldea eta Diziplina arteko Lan Teknikorako Taldea).



- Parte-hartzaileei eman beharreko informazioa prestatzea.
- Organoak eratzea.
- Lanerako mugarriak eta baliabideak antolatzea.

Arduraduna: EAEko Ingurugiro Organoa.

Hasierako aro honetatik aurrera, Ingurugiro Organoa Ingurugiroko Esparru Programa lantzen hasiko da, Batzorde Tekniko Koordinatzailearen laguntza duela.

I FASEA: ALDEZ AURRETIKO DIAGNOSTIKOA

Fase honetako helburua parte-hartzaileen ekarpenak batzea da. Abiapuntuaren diagnostikoa eta etorkizunean izan daitezkeen eskaera eta helburuena egingo da lehenik, dagoen informazioaren eta talde-lanerako prestaketaren bidez.

1. urratsa: Programaren Irteera

Aro honetan, Ingurugiroko Esparru Programa lantzeko ahalegina egingo da: landu behar diren gaiet buruzko eduki orokorra jasoko da. EAEko Ingurugiroaren Egoera eta honen osagaiak eta gaiak, izango dira aztergai.

Horrez gain, une honetan komeni da Europako Batasuneko ingurugiro-politikak eta helburuak ikusi eta ebaluatzea, gero erreferentziatzat hartzeko balio izango baitute.

Hain zuzen, lan hauek biltzen ditu:

Esparru Programaren helburuak eta irismena jendaurrera azaltzea.

Fase honetako parte-hartzaileentzako parametroak, sakonera eta lan-metodoa ezartzea.

EAEko ingurugiro-politikako gakoak eta estrategiak identifikatzea.

Arduraduna: Batzorde Tekniko Koordinatzailea

2. urratsa: Nahi den ingurugiro-kalitatearen balorazioa

EAEko ingurugiro-politika ezarri behar den inguru hurbilenean, artatuko den gizartean eta honek inpaktu-eragileen aurrean duen egoeran nolako eboluzioa izan litekeen jakiten ahaleginduko da. Funtsezko elementua da eragileen multzoak, eta bereziki publikoak duen balore-eskala.



Gizartera zuzenean iritsiko den erreminta erabiliko da: inkesta. Desberdinak baina elkarrekin osagarri diren bi helburu hartuko ditu inkestak:

- Ingurugiroaren katea osoan barrena jendeak egoera nola haute-maten duen ezagutzea: batez ere "oinarrizko arazotzat" jotzen direnak.
- Gizartearen eskaerak, beharrak eta lehentasunak zehaztea, egun-goak eta gerokoak, eta gizartearen konpromisoa zenbatekoa izatera irits litekeen jakitea.

Urrats hau I Fasearen muina da eta, beraz, berme guztia duen informazioarekin aurrera eramatea eskatzen du.

Aurrekoaren osagarri, gizartearen beharrak eta nahiak ingurugiro-arazo zehazteta eramango ditu eta, hala, Ingurugiroko Esparru Programaren gai nagusiak ezarriko dira.

Hain zuzen, honako eginkizun hauek izango dira:

- Informazioa eta sentsibilizazioa jendearengana hedatzea.
- Jendearen hautemateari, ingurugiro gaietako eskariei eta konpromiso-mailari buruzko inkesta prestatzea.
- Inkestaren emaitzak ustiatzea eta sintesia egitea.
- Gizarteak ingurugiro-kalitatearen inguruan eskatzen duena baloratzea.
- Gizartearen baloreen iraunkortasuna aztertzea.
- Ingurugiro-gaien eta eragileen aurretiazko diagnostikoa egitea.

Arduradunak: Gizarte Lanerako Taldea eta Batzorde Tekniko Koordinatzailea


II FASEA: HAUSNARKETA ETA GARAPEN ESTRATEGIKOAK

Ingurugiro-sisteman presio egiten duten eragileetara mugatzen da eta, etorkizun hurbilean jarraitu beharreko estrategiak zehaztu nahi ditu. Fase hone-tan, estrategiari buruzko hausnarketa sormen-lana dela berretsi behar da.

Lurralde aurreratuagoetan lortutako emaitzak erreferentziatzat hartzea izan daiteke lanerako bide egokia; bereziki, emaitza horiek nola lortu dituzten edo lortu nahi dituzten begiratzea. Hortik ikus liteke EAEn politika hauek ezartzeko modukoak zein eragile edo eragile-talde izango lirartekeen. Jarraitu beharreko estrategiak zehaztuz gero, eragileen erantzun posibleak eta erantzun horien arteko lotura, eztabaidatuko dira.

Prozesu Metodologikoa (Jarraip.)

II FASEA
Hausnarketa eta
Garapen Estrategikoak



II. FASEaren jarraipena

Fasea amaitzean, Ingurugiro Sistemako eragileen artean ezarri eta garatu beharreko jarduera-ildoen multzo koherente eta sendoa izango da esku artean.

Fase honetan ondoko urrats hauek daude:

3. urratsa: Euskal Autonomia Erkidegoa Ingurugiro Politika finkatzea

Ingurugiro Politikari dagozkionak zehazten ahaleginduko da: arazoak, hauen jatorria eta konponbidearen konplexutasuna. urrats honetan, eragileen jardueraren hazkundean eta ingurugiroaren gaineko inpaktuan izan litekeen eboluzioari arreta bereziki eskaini behar zaio. Era berean, oso garrantzitsua da, lanerako hiru maila posibleak argi zehaztea (maila globala, eskualdekoa eta lokala); baita esparru horietan planak eta programak koordina edo pertsonaliza litezkeen moduak ere.

Hain zuzen, ondoko eginkizun hauek izango dira:

- "Ingurugiroko Gai Aldagarriak/Eragile emisoreak" ardatz nagusia prestatzea.
- Ardatz hori etorkizunera proiektatzea.
- Alderdi kritikoak baloratzea.
- Egoera errealarekiko aldeak egiaztatzea.
- Ingurugiro-kalitatearen adierazleak finkatzea.

Aurreko ardatz nagusiek Ingurugiro Sistemaren osagai bakoitzean "izan litekeena"ren eta "nahi litzatekeena"ren arteko banaketa jasotzen dute batetik eta, "abiapuntuko desberdintasunak ahalik eta txikien egiteko kudeaketaren konplexutasuna" bestetik. Ardatz nagusi horiek oinarrizkoak izango dira geroko ekintzetarako lehentasunak erabakitzeke eta helburu-lehentasuneko sektoreak eta hauetako bakoitzak lortzeko moduko xedeak zehazteko.

Taula bat prestatuko da, Ingurugiro Egoeraren eta bere bilakaera ezagutzeko bitartekoen adierazgarri.

Arduradunak: Diziplina arteko Lan-taldea eta Batzorde Tekniko Koordinatzailea.

4. urratsa: Lehentasunezko Helburuak Hautatzea

Gizartean nahi den ingurugiro-kalitatearen balorazioa eginda eta ingurugiro-politika zehaztuta daudela, ekintza-ildoak ezartzeko hautaketaren eta



lehentasunen oinarriak finkatu behar dira. Epe ertainera eta luzera ekonomia eta ingurugiroa banantzeko helburua izango da funtsezko irizpidea.

Helburuetan lehentasuna duten sektoreak izendatuko dira eta, gero, haue-
tan, banantzeko prozesu horretan lortu nahi den helmuga zehaztuko.
Ekintzarako ildoak (Erantzunak) ordenatu ere egingo dira, beren irismen
partzialaren, eskualdearekiko bateragarritasunaren eta, zenbaitetan, kudea-
ketarako dituen zailtasunen edo eztabaiden arabera.

Hain zuzen, ondoko eginkizun hauek dira:

- Irizpideak prestatzea eta ingurugiroaren gai eta aldaeren artean lehentasunak jartzea.
- Seinalatutako ingurugiro-aldaera bakoitzerako helburu kuantitati-
boak azaltzea.
- Helburu horien aurrean eragile emisore bakoitzak duen lekua zehaztea.
- Eragile emisore bakoitzeko helburu kuantitatiboak azaltzea.
- Helburuen eta faktore kritikoek arteko koherentzia aztertzea.
- Ekintza-ildoak//Eragileak ardatzak zehaztea.
- Helburu horiek lortu arteko aurrerapenen erritmoa kalkulatzeko.

Urrats honen bukaeran, hasierako "norantz eta noraino joan liteke?" galde-
rari erantzuna ematen zaio, ikuspegi eta hizkuntza komunak erabilita.

Arduradunak: Diziplina arteko Lan-taldea eta Batzorde Tekniko
Koordinatzailea.

5. urratsa: Jarduerarako Neurriak

Urrats honetan, eragileek martxan jarri beharreko jardueren eta neurrien
proposamenak eta jarritako helburuak lortzeko beharko litzatekeen lanki-
detza-maila jasotzen dira. Helburu eta saio bakoitza burutzeko lanabesik
egokienak ere hautatuko dira.

Hain zuzen, ondoko eginkizun hauek izango dira:

- Ingurugiro Organoak Eragileen Lan-taldeak osatzea.
- Eragileekin sektoreko helburuak eztabaidatzea eta erabakitzea.
- Jarduerarako neurriak eta programak zehaztea.
- Laguntzarako lanabesak hautatzea.
- Zerikusia duten eragileekin negoziatzea.



- Martxan dauden programen kudeaketa atzera berriz zehaztea.
- Lokalaz gaineko eremuetako programekin koordinatzea.

Jarduerarako proposamen bakoitzak, ongi arrazoituta, honako hauek bilduko ditu:

- Garapenerako neurriak (gehienera jota, jarduera-ildoko hiru)
- Epe ertain eta luzerako emaitzak
- Giza baliabideen eta baliabide materialen aprobetxamendua
- Bideragarritasun ekonomikoa
- Garapen jasangarriaren araberako bideragarritasuna
- Kudeaketarako lan-tresnak
- Hasierako egikaritzerako epea eta jarraipenerako epeak
- Zerikusia duten eragileak
- Eragile dinamizatzailea
- Zerikusia duten taldeen arteko hedatze- eta eztabaidatze-prozesua.

Jarduera-multzoa izango da, berez, Ingurugiroko Esparru Programaren muina.

Arduradunak: Eragileen Lan-taldeak eta Batzorde Tekniko Koordinatzailea

6. urratsa: Ingurugiroko Esparru Programa onartzea

Aro honetan aurreko proposamenak hartu eta eremukako eta eragilekako politikak zehaztuko dira. Hor ikusiko da, jarduera aurrera jarraitu ezinik geratu, atzeratu edo murriztu ez dadin eta azken helburuak arriskuan jar ez daitezkeen Administrazioak hartutako finantza-baliabideak emateko konpromisoaren isla.


Horrez gain, hautatutako jarduera-ildoen emaitzen eta errendimenduaren ekoeraginkortasunarentzako eta banantzearentzako adierazleak prestatuko dira.

Gisa berean, ingurugiroaren emaitzak zaintzeko eta kontrolatzeko elementuak finkatuko dira eta horietatik izango dira Ingurugiroko Esparru Programak indarrean dirauen 12 urteetan EAEko ingurugiro-egoerak izango duen bilakaera egiaztatzeko elementua. Adierazleen jarraipena epe luzera egiteko inbertsio eta mantenimenduaren ekonomi kostua ere aurreikusiko da.

Urrats honen bukaeran, helburu, jarduera eta lanabes justifikatuen (orokorren nahiz partzialen) multzo egituratu eta ordenatua eta hauek eragileen Sektore Planetan integratzeko gomendioa izango da.

Prozesu Metodologikoa (Jarraip.)

II. FASEaren jarraipena



Jarduera hauek gizartean errotzeko eta beren onargarritasuna bermatzeko, ingurugiroaren inguruko ondorio, gomendio, akordio eta planei buruzko informazio- eta hedatze-kanpainari ekingo zaio.

Hain zuzen, ondorengo betebeharrak izango dira:

- Ingurugiro Organoak eragileekiko akordioak izenpetzea.
- Ingurugiro-politikarako lanabes berriak erabakitzea.
- Ingurugiroko Esparru Programa eskualde arteko programetan sartzea.
- Ingurugiroko Esparru Programaren kostu publiko eta pribatua ezartzea.
- Ingurugiroko Esparru Programarako finantzabideak ezartzea.
- Eraginkortasun eta errendimenduaren adierazleak ezartzea.
- Ingurugiroko Esparru Programaren azken idazketa egitea.
- Gobernu Kontseiluak Ingurugiroko Esparru Programa onartzea eta Eusko Legebiltzarrerara igortzea.
- Ondorioei eta konpromisoei buruzko informazio-kanpaina gizarteratzea.

Onartzailea: Eusko Jaurlaritzako Kontseilua

Zuzendaria: Ingurugiro Organoa.

Arduraduna: Batzorde Tekniko Koordinatzailea.

Aholkularitza eta Informazioa: Euskal Ingurugiro Batzordea eta Ingurugiro Aholkularitzarako Kontseilua.

III FASEA: EZARPENA, JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Ingurugiro Organoak Ingurugiroko Esparru Programaren ondorio zehatzak eta koherenteak jasoko ditu eta bere ardura onartuko du oinarritzko hiru norabidetan: gizarteak ingurugiro-arloan eskatutakoa lortzeko bidea dinamizatuko du; ingurugiro-gaien hobekuntza aldiberekoa izan dadin eta batzuen eta besteen arteko desfaserik gerta ez dadin, koordinazio-lanak egingo ditu; eragileei etengabe lagunduko die, eraginkortasun/kostu harreman egokiko lanabes malguak eskura jarritz.

Fase honek Programaren indarreango aldi osoa iraungo du, hau da, onartzen denetik 2012. urtera arte.


Ezarpena

Onartutako jarduerak eta neurriak pixkanaka eta hitz emandako lanabes eta bitartekoekin martxan jartzekoa izango da garai luze hau.



Prozesu Metodologikoa (Jarraip.)

III FASEA
Ezarpena, segimendua
eta ebaluazioa

Sektoreko edo
Agenteekiko akordioen
garapena



Seguimendua



Informazio
Publikoa
Parte-hartzaileak

Ingurugiroko Esparru Programa berria



Arduraduna: Eragileak.

Dinamizatzailea: Euskal Ingurugiro Organoa.

Jarraipena eta ebaluazioa

12 urteko iraupeneko Ingurugiroko Esparru Programak beharrezkoa du lortzen diren emaitzen etengabeko jarraipen prozesuaren bidez berrelikatzea.

Horregatik, jarraipena eta ebaluazioa, Esparru Programa landu eta onartuz geroztiko prozesuak dira, eta aldian behin egingo direnak.

Ekoeraginkortasuneko adierazleak izanda eta Ingurugiro Egoera "monitorizatua" egonik, gertatzen diren okerrak eta hauen arrazoiak izan litezkeenak ikus daitezke kausa-ereduaren bidez; baita aldaketa horiei dagozkien zuzenketak egin ere.

Jarraipena egiteko, ingurugiro-kalitatearen osagaietako bakoitzaren Egoeraren eta Inpaktuaren adierazleak bi taldetan banatu behar dira: eboluzioaren adierazleak eta estrategiaren adierazleak taldeetan. Lehenengoetan, martxan dauden planen jarraipen kuantitatiboa eta bultzada emateko ekintzak egingo dira. Estrategikoei, aldiz, zuzenketa-ekintzak sustaraziko dituzte eta, behar balitz, aurreikusitako jarduera-ildo edo programak berrikustea.

Jarraipen, kontrol eta berrikuspen-prozesu aldizkako horri dagozkion egin-kizunak, honakoak dira:

- Adierazleak neurtzea eta ebaluatzea.
- Denboran eta baliabideetan leudekeen desfaseak kontrolatzea.
- Eragileen Parte-hartze elkarreragilerako bideak ezartzea.
- Aldian behin, emaitzei buruzko informazioa plazaratzea.
- Izandako eboluzioak jende artean izan duen onarpena egiaztatzea.

Desbideratzeen garrantziari jarraiki, eta aldaketa handiak (berrikuspenak) komeni diren ikusita, Ingurugiro Organoak Eusko Jaurlaritzako Kontseiluari proposatuko dizkio behar diren berrikusketak.

Arduraduna: Batzorde Tekniko Koordinatzailea.

Zuzendaria: Euskal Ingurugiro Organoa

Ingurugiroko Esparru Programaren Kronograma

URTEA	2000/20001														2001/2004	2004/2008	2008/2012	2013	
Hilabeteak	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14					
0 FASEA																			
I FASEA																			
II FASE																			
III FASE																			
SEGUIMENDUA																2004 Lehen ebaluazio- txostena	2008 Bigarren ebaluazio- txostena	2012 Ebaluazio- txostena	2012/2025 Ingurugirok o Esparru Programa berria

4.4. Ingurugiroko Esparru Programaren egutegia

Egitea

Ingurugiroko Esparru Programa egiteko aurreikusitako epea 14 hilabetekoa da; hiru metodologia-faseak garatzeko eta egiteko behar den gutxienezko denbora.

Ezarpena eta Segimendua

Esparru Programa ezartzeko eta garatzeko denboraldia 20012. urtearen amaiera bitartekoa izango da.

Ingurugiroko Esparru Programaren egoera berrikusteko 4 urteko denboraldia ezarri da, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorrak agindu bezala.

Denboraldi hori amaitutakoan Ingurugiroko Esparru Programaren ebaluazio-txosten zehatza egin beharko da; halaber, eskualde-eremuan eta eremu globalean dagoen egoerarekin ere alderatuko da. Hori izango da hurrengo Ingurugiroko Esparru Programaren oinarri.